

# Eskolaz eskola

# Lekeition

**E**skolaren historia gain-gainetik ikusiko dugu, laster (mexikarren ahorita ez dadila izan) eskolakoek liburu bat argitaratu behar dute eta. Hemen agertzen den sarreratxoa, beraz, januarreko edo aperitibo txiki bat baino ez da, liburu hori izango da plater nagusia. Zer dela-eta, amaitu -edo oraingoan hasi- behar dugu beti eskaldunok sukaldaritzaz hitz egiten? Guk baino gehiago zekitenek dastamena jakituriarekin lotu zuten; saber eta sabor, jakin eta dastatu, sapere sustraitik datozela irakurri nuenean asko poztu nintzen -hainbat Mitxelín izar zituen lurraldeak jakituria ere parekoa izan behar zuen-, baina arazo bat sortu zidan: kultura soilik edo gastro-kulturaz ari behar nintzen? Erabaki salomonikoa izaten da honelakoe-tan egokiena, beraz, irakaskuntzaz idatziko dut, errezetak eta sukaldariak hurrengorako utzita, baina bokata eder bat eskuan daukadala.

Maisua eta eskola batera doaz, beraz, eskola bila bagabiltza lehenik maisuak aurkitu beharko ditugu. Jakin dakigu (dokumentazioan agertzen diren sinadurak eta dokumentuok existitzeak frogatzen dute), betidanik, Behe Erdi Arotik gutxienez, egon izan direla ikasiak edo eskolatuak, baina maisuei buruzko lehen aipamenak 1500 aldekoak dira. “Maestre escuela” lez ezagutu izan ziren eta ez zirudien ofiziorik onena. Beste lantxo batzuetan ere ageri ziren -koadernatzaile edota amanuense gisa batez be-, antza, maisuaren lanak ogia irabazteko beste ez zuelako ematen.

Paper artean ibili naiz lehen eskola publikoaren bila, baina ez da, ez, erraza. Ez dago batere argi -dokumentazioak eta hauxe idazten duenak ere beren gabeziak dituzte-, baina 1530. hamarkadatik aurrera udalaren gastuen artean (descargos), eskolako maisu horrena agertzen da. Laguntzatxo bat izango zen, soldatatzatxo bat, aukera zegoenean, edo eskolaren alokairua udalaren kontura. Medikuari 20 dukatetik gora ordaintzen zitzaion artean maisuei 4 dukat potozorri bakarrik. Hala ere, ez zen esfortsu txikia sekula zentimorik izan ez zuen udalarentzat.



“Astoria eskolan” grabatua. Pieter Brueghel zaharrari jarraituz Pieter Van der Heydenek egina 1557an. Badirudi askorik ez zela ikasten orduan.

Publiko hitza erabili dugu, baina argitu behar da udalaren menpeko maisuak zirela, eta ez Jaurerriarenak, ezta koroarenak ere. Gainera ikasketak ez ziren debalde, ikasleek zerbait ordaindu behar zioten maisuari. Sarritan, ez beti, irakurtzen ikastearren apur bat ordaintzen zioten, zerbait gehiago idazten ikastearren eta matematika-abilitateengatik oraindik gehitxoago.

Hurrengo mendera goaz, Austria handiak eta gero, txikiak datoz. Dena txikituzen; Lekeitio bera ere suteak eta izurriteak hondatu zuten XVI. mendearen amaieran. Zorionez, hezkuntza arloan behintzat, ez dirudi hondamendi horrek kaltetu zigunik, hori bai, laguntza apur bat izan genuen.

Mezenas hitza erabiltzeko nengoen filantropoarena edo mesedegile (benefactor) bururatu zitzaidanean. Aberats eskuzabalen -itxuraz “contradictio in terminis”- laguntzari esker lekeitiarrek ikasteko aukera izan zuten, baita unibertsitatean be.


Martin Ochoa de Urquizarren “obras pias” deitzen ziren aginduek egin zuten posible. Negarrezko haran honetatik alde egin eta zerua irabazi beharra zegoen. 1604an hil zen Sebilan, sekula Lekeitiora bueltatu bari. Diru ederrak irabazi zituen honek lekeitiarrei opari eder bat egin zien. Aurrerantzean ez zen maisurik falta Lekeition.

Juan de Uribe jenerala eta Sebastian Lopez de Sosoaga sarjentu nagusia ere ahalegindu ziren, baina Mendiola kapitaina izan zen jesuitak Lekeitiora etor zitezten bere fortuna guztia jarri zuena. Jenerala, sarjentu nagusia, kapitaina, denak militarrik!

Lekeitiok, beraz, jesulagunen ikastetxe edo colegio bat izan zuen 1688tik 1767ra arte. “Gramatica”-ko eskola hasieran, gero “Primeras Letras”ekoa ere bere gain hartu zuten.


XVIII. mendean sartu eta dinastia aldaketa suertatu zen. De Guatemala a Guatepeor? Ez dakit, Borboi handiak deituko diet. Gainetik begiratuta, kulturari dagokionez, gure urrezko garaia izan zen: (tertuliak,

zientzialariak, Nautikako ikasketak, idazleak, poetak...) *fuera de la Ciudad de San Sebastian es el mejor lugar y de gente mas politica que hay en toda la costa.* (Lekeitio dela ez da esan behar? . Bizkaian, Bilbok bakarrik zituenu RSVAP- eko bazkide gehiago. Villarrealtar novatoreak edo aurre ilustratuak (Pedro Bernardo eta anaia) ziren errudun ala lehentxoago ere bazegoen giro hori? Jesulagunen sistema pedagogikoa, antzina aurrerakoia, beharbada zaharkituta egongo zen ordurako, baina emaitza onak ematen zituela ezin da zalantzan jarri. Gainera, irakasleak (ludi magister) hemengoak ziren, Gabriel Ugarriza Aranzibia lekeitiarra (1723-1752) eta Miguel Ibaseta berrriatuarra (1752-1767). Erabili ote zuten euskara klaseetan? Gaztelaniaz irakatsi behar zen, baina euskararekiko zuten maitasunaren seinale Agustin Basterrechea Ibañez de la Renteria lekeitiar jesulagunaren obra dugu.



“2000. urteko eskola” Villemard, 1910. Cromolitografia.  
Zelakoa izango ote da 2100. urtekoa?

*Jesu-Kristori kendu ezkeru  
pekatuakin bizitza  
baldin ez badot negar egiten  
harrizkoa dot bihotza*



Nobedaderen bat aipatu behar bada nesken eskolarena da. Azkenean emakumeek ere eskola izan zuten. Ordura arte aberatsek bakarrik eskolatzen zituzten alabak, aurrerantzean geldi-geldi baina, mutil eta nesken arteko aldea murrizten joan zen.

Jesulagunak bota zituzten 1767an, euren patua, eta ozta-ozta bazen ere, udala eskolaren kargu egin zen berriro.

XIX. mendean Borboi txikiak zeuden agintean jada, baina Errepublika bat eta errege berri bat ere ezagutu zituzten lekeitiarrek. Izugarri hazi zen Lekeitio, 2000 biztanletik 4000 baino gehiagora! Ateak eta harresiak bota behar izan ziren.



Aitor eta Xabier Iturbe, Gabikenekuak.

Ameriketara joan nintzen zentimorik gabe eta handik etorri zen Jose Javier Uribarren milioi batzuen jabe. Bere diruarekin hainbat proiektu potolo egin ziren; hezkuntza arlokoak bakarrik aipatuko ditut: Elexateako eskola berria, 1834 bueltan, (diruz lagundu zuten), Konpainiako *monjen* San Jose kolegioa (1854), Nautikako eta Latinitateko eskola, hau be Konpainiako kalean, (1862), eta amaitzeko, Eskolapeko eskola berrian ere berak utzitako dirua erabili zen, (1866). Eutsi horri!

Udalak zentimorik ez zuen garaian, analfabetismoa oraindik larria zen arren, “grosso modo” (sekula ez dut latinik jakin, baina hitzok nahi barik datozkit burura, azkartzen ari naizen seinalea edo) lekeitiarrek ez zuten arazorik izan. Mende amaierarantz Lekeitio dezente eskola genituen: mutilen eskola bi, nesken beste bi, Nautika eta Latinitatekoa, gau eskola, umeena eta gainera maisu eta andereño pribatuena.

XX.era heldu gara, Borboi pigmeoen garaira; aurreko mendean denboratetik onik irten baginen, gehitxoago kostatuko zaigu oraingoan. 60etara arte ez zen ezer aurreratu, batez ere Francoren garaian. Hala ere, analfabetismo tasa pixkanaka beherantz zihoan. Ikastola 64an (zorionak zuen 50. urteurrenean), eta eskola publikoa -65ean, Atean eta 72-77?an, Larrotegian-, etorri ziren gure erreskatara. Institutua bakarrik falta zen. Iturriotz zabaltzean (96an) bete zen hutsune hori.

Harrituta nago, bost mende mando orrialde bitan! Zertxobait gehiago jakin nahi duenak eskolako liburu horri itxaron beharko dio. Bietan lan egin dut eta badakit hainbat asunto interesgarri ekarriko digutela. Eskola eta ikastolaren txanda heldu da.

# Lekeitioko Herri Ikastetxea



- L.G.E (OHO-EGB, BBB-BUP eta UBI-COU)



- Franco hil azaroan
- Euskara ezartzeko lehen urratsak

- 5 irakasle euskaldun eskola-aurrean
- Adarra irakasleen mugimendu "pedagogikoa" sortu

- Lehen (bigarren) euskal gobernu, Garaikoetxea lehendakari
- 19 irakasle gazte euskaldun

- 2 euskarazko irakasle

1965

1972  
1973

1977

1979

1982

1970

1975

1978

1980

- Ateko eskolak "Gure Antiguako Ama" martxan



- OHO-ko (EGB) zentrua "Eusebio Maria de Azkue" martxan



- Haur hezkuntza eskola martxan

- Ikurriñaren legalizazioa



- Autonomia Estatutua
- Gurasoen elkarte

- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea (EENL)





- Europako Ekonomia Erkidegoan sartu



- Euskal eskola publikoaren jaia EHIGE



- Lehen Aste Kulturala
- Lekeitioko "institutua", Iturriotz




- Haurreskola



- Karmele Alzueta saria



- Urrezko Bikain



- A,B, eta D ereduak
- Lekeitioko eskola publikoa (Antiguako Ama eta Eusebio Maria de Azkue zentruak bat eginez)



- LOGSE

- Euskal Eskola Publikoaren Legea
- (EEPL)

- Ikas komunitateak

- Included (2006-2011 ikerketa)

- Talentuz
- Hezkidetza



# Eraikinak


## Larrotegian eta Atean

Labur-labur. Hau dela eta bestea dela, Lekeitiok azken hamarkadetan ezin izan zuen eskola publiko dezenterik zabaldu. Egoera penagarria zen; 1956an 750 ume (4-12 urte tartean) eta 262 ume mando eskolatu gabe!

Azkenean, Okamika alkate zela, lortu zuten Atean eskola berriak aldatzea. 1965-66 ikasturtea izan zen lehena; 8 talde (grupo escolar) eta 8 etxebizitza (irakasleentzako). Nahiz eta aurrerapausu dezentea iruditu egoera larria zen oraindik 1965eko otsaileko idatzi batean adierazten zen bezala. *“Las escuelas en construcción, 6 son sustitución de las existentes, -5 nacionales y 1 municipal- y 2 son de nueva creación”* Bi talde gehiago bakarrik, ez zen nahikoa. Beste 10 talde gehiago behar ziren.

Adi denok, orain datorrena nahiko nahasia da eta! Hasi ziren bada Larrotegian lur bila eta 10 taldeko zentrua izan behar zena eskualdeko zentru handi bihurtu zen, 24 talde eta 10 etxebizitzaz osatua. Asmoak handiak, baina ez zen ezer egin. Hasi ziren baita Institutu bat eraikitzen ere (1968rako gobernuaren oniritzia zuten), baina orduan ere lapur asko zegoenez azkenean institutua bertan behera utziz, gaur egun Haurreskola dena eraiki zen (1973an martxan) eta OHO-ko zentrua (1972), 6 eta 16 talderekin hurrenez hurren. Gerotxoago, (1978) gaur egun kolorinetako eraikina dena zabaldu zuten.


Irudiak: Lekeitioko udal artxiboa, LUA.




“Ateko eskolaren plano” Álvaro Libano, 1963ko apirila. Gaur egungo eraikina ez da plano honetan agertzen dena. Bidetik hurbilegi geratzen zela-eta, atzerago eraiki zen eta gainera biratu egin zen. Álvaro Libano izan zen arkitektoa bi proiektuetan.




“Ateko eskola”.  
Álvaro Libano, 1965.



Larrotegiko eskolak (71-73)



Larrotegiko "institutoko" planoak. Álvaro Libano eta Jesús Iriarte, 1971ko maiatza.



Larrotegiko "eskola zuriko" planoak. 1976ko maiatza.



## VIZCAYTIK BIZKAIRA

### EUSKARAREN EZARPENA

Francoren dikataduraren amaieraren seinale, 70eko hamarkadak gizarte aldaketak erakarri zituen. Aldaketa horien artean hezkuntzaren berrituraketa eta euskararen aldarrikapena zeuden. Euskal Eskola Publikoa ez zen atzean gelditu.

Lekeitioko Eskola Publikoa aintzindari izan zen euskararen ezarpenean. Herritar gehienak euskaldunak izanik, giro ezin hobea zegoen aldaketarako. Horretan bat egiten zuten senide, ikasle eta irakasle taldeko zenbait partaidek.

## 65-74

Sasoi hartan lau eskolak osatzen zuten beranduago Lekeitioko Eskola Publikoa bilakatuko zena: Gure Antiguako Ama, Eusebio Maria de Azkue eta bakoitzak bere Eskolaurrea. Bi auzunetan, Portal de Atea eta Larrotegin, banaturik zeuden lau eraikinetan mila ikasle inguru ari ziren; Alicia Eigurenek honela dio –Ezkonduta gero itxi neban eskolie... eta laugarren umie eskolara erun nebanien hasi nintzen barrero 1971n Portal de Atean. Hurrengo kurtsuen egin zan hemen institutu baina ezin zan ipini hemen institutu eta EGB sortu zen orduan. Eta EGBn sartu nintzen. Gero eskolaurre egin neban UNEDetik, eta euskeri sartu zen eskolaurrera etorri nintzanian. Julene Benedicto andereñoak gogoratzen du ordukoa –... 1973ko urriaren amaieran Lekeitiora etorri nintzan eskolaurrera, uste dot orduantxe inauguratu zela. Patioa egin barik zegoen. Lehenengo Nuestra Señora de la Antigua egon nintzan eta gero eskola publikora ... ez nintzan egon “komarkalean”

## 75-76

Hasierako pausuak ez ziren errazak suertatu. Ikasgelako orduetatik kanpo irakaslen zen euskara eta horrek irakasleen inplikazio berezia eskatzen zuen. Eta ez hori bakarrik, beste irakasle erdaldunen ulertezina eta egonezina ere sorrarazi zituen.

Karle Beristain –...1975ean Franco hilzorian egoan.Fernando, zuzendaria, nazionalisti zan eta bera etorri zen eskatzen euskera emoteko. Zuzendaria asko agintzen eban eta ahalmena euki eban euskera sartzeko. Guk irakasle batzuk umeekin euskeraz egiten genduan eta ... berak lagundu euskun euskera emoteko.

Baina euskarazko klaseak ez zituzten eskolako irakasleek bakarrik ematen. Euskararekiko zaletasuna eta euskararen aldarrian beste herritar asko ere inplikatu ziren, Jabier Txakartegi eta Bedarona ahizpak esaterako. Txakartegi: –Ni 76an hasi nintzan, 12 urteko ikasleei euskara ematen eguerdian. Neure borondatez emoten nebazan klasiak, pentsatzen nebalako horixe zala modurik egokiena euskeria mantendu eta umiak euskara ikasteko... etxian ikasitakuagaz berbetan bazekiten baina idazten ez.

## 77-79

Gutxinaka bazen ere, euskarak gero eta presentzia handiagoa zuen ikasgeletan: bi irakasle baino ez 77an, bost 78an, eta hamaika 79an.

Euskararen ezarrera prozesuan eta Hezkuntza Ereduen garapenean gurasoen egitekoa funtzeskoa izan zen. Horren harira, 1979an, lehendabiziko “Lekeitioko Eskolako Ikasleen Guraso Elkarte” sortu zuten, irakasleekin batera elkarlana bultzatzeko eta seme-alaben ikasketak hobetzen laguntzeko. Elkarte honek ere, bere protagonismoa izan zuen euskararen ezarpenean, bat egiten zuelako ira-

kasleen nahi eta ametsekin

Sabin Elordieta –Euskeria bultzatu ein gendun baina asko, guraso mailan, txo!... lehenengo kurtsoa hasi zana euskeri bakarrik emoten... uste dot dana euskeraz emoten izan zala 1979-1980an...

–Franco hil ostean, 76an, hasi ginen euskera bultzatzen irakasleekin batera. Guk euskerazko ikasketak nahi genituen gure seme-alabentzat eta hori lortzeko antolatu eta burrukatzen hasi ginen.

1979an D eredia sartu zen OHO-ko 1. mailan behin betiko. Aurrerantzean gure gazteak euskara hutsez hezikiko ziren.

## 80-82

Irakasle euskaldunen kopurua gorantz zihoan. 19 irakasle 80an, 23 irakasle 81ean eta 29, 82an. Harrezkero, irakasle euskaldunak gehiengo ziren.

1981ean Hezkuntza Sailak IRALE (Irakasleak Alfabetatu eta Euskalduntzeko programa) sortu zuen, Unibertsitatez kanpoko irakasleen hizkuntza-gaitasuna hobetu eta gizarteak irakaskuntza euskalduntzeko zuen eskakizunari aurre egiteko helburuarekin. Jesus Diez –Ni eskola honetara heldu nintzen 1982an eta lehenengo-lehengotatik hasi nintzen euskera ikasten. Gero, IRALEk antolatutako ikastaroan parte hartzeko beste ikastaro trinko bat egin neban sarrerako azterketa gainditzeko. Gainditu neban eta parte hartu neban kurtso osoan, handik hasi nintzan B ereduan klasiak emoten eta gero EGA titulua atara nebanetik D eredutan egon naiz klasiak emoten jubilatuta arte.

1982an Haurreskola biek bat egin zuten.

1982ko azaroaren 24an argitaratu zen EENL-ek “Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legeak”, besteak beste, eskoletan ematen ari ziren euskararen ezarpen prozesu solteak onartu, berretsi eta modu ofizial eta babestuan bultzatu zituen.


# 83

1983ko ikasturteak berebiziko garrantzia izan zuen: "Antiguako Ama" eta "Eusebio Maria de Azkue"ko eskola biak elkartu egin ziren.

Karle – Oso garrantzistu izan zen hiru eskolok batzea D eredia eta euskera indartzeko... Euskera ematen gendunok proposatu genduan eskolak batzea, D eredia finkatzeko eta A desagertzeko. Eta D eta B gelditu ziren 1983an zuzendaritza bakarraren menpe.

1983ko uztailaren 19an, Hezkuntza eta Kultura Sailak, Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan Hizkuntza Ofizialen erabilera dekretua argitaratu zuen (Hizkuntza ereduaren dekretua). Beste herrialde batzuetan izandako esperientziak aintzat hartuta (Irlanda, Kanada, Katalunia) A, B, eta D, ereduak ezarri zituen praktikan ari ziren Hezkuntza Ereduak legeztatuz.

Ikasturte horretan euskara hutsez ikasteko ikas-ereduak "D" ereduak, hain zuzen, Haur Hezkuntza eta OHOk 5. mailara arte heldu ziren. Guztira 16/17 talde eta ehundaka ikasle hartzen zituztelarik.



Euskarak zuen egoera normalizatzea eta lege zein dekretuek aurreikusitako helburuak lortzea ez zen lan erraza gertatu. Ñaki Etxebarriaren esanetan arrazoiak honako honek ziren:

- Euskara hizkuntza gutxitua zelako.
- Gaztelerarekin konparatuz, askoz indar gutxiago zeukalako.
- Ikastoletan izan ezik, irakasle gutxi zekitelako euskaraz. 1980an irakasleen %5a bakarrik zen gai euskaraz irakasteko.
- Euskaraz irakasteko materiala faltan zegoelako.

1983ko apirilaren 19koa da Sabino Madariagak lehenengoz euskaraz idatzi zuen akta.

# 01-14

- Etxeko euskaratik Batuara: Etxeko euskara – Etxeko euskara jasoa - Batua
- Euskara Nomalkuntzako Programak: NOLEGA-EIGE-EIKE
- Hizkuntza Indartzeko Proiektu Integrala programa -HIPI programa-: ikasle etorkinak euskaratzeko eta eskola inklusioa bultzatzeko berariazko ekimena.
- Euskararen Eguna zelebratu: aste osoan zehar egiten dira ekitaldi desberdinak eta horietan parte hartzen dute: ikasle, senide, begirale, irakasle...
- Senideen Euskalduntze eta Alfabetatze ikastaroak: eskolak berak gehienetan eta kasu batzuetan AEK-rekin elkarlanean, senideak euskara ikasteko ikastaroak antolatzen ditu eskolak.
- Irakasleen Etengabeko Prestakuntza: irakasleak euskararen ezagutza eta erabileraren prestakuntza jasotzen du bai indibidualki bai klaustro mailan IRALERen eskutik.
- Eleaniztasun proiektua: euskara-gaztelera eta ingelera batu ziren hizkuntzen trataera bateratzen ikuspegitik.
- URREZKO BIKAIN aitortpena lortu zuen Euskal Herriko lehen eskola publikoa.

# 84-92

## Finkatze prozesua

90 Eskolako Kultur Astea

91 Euskal Eskola Publikoaren jaia. Euskal Hezkuntza Publikoaren alde eta euskara bultzatzeko asmoz urtero Euskal Herriko herri ezberdin batean egiten den jaia da, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak antolatua.

-Ereduen arteko batetik bestera joanaraztea: A eta B ereduko ikasleak D eredura pasatzen ziren akademikoki aukera zegoenean.

A eredia 89an desagertu zen eta B eredia 91an. Aurrerantzean D eredia bakarrik gelditu zen.

-Egonaldi pedagogikoak: euskara zekiten ikasleak eta erdara zekitenak elkarrekin joaten ziren irteera edo egonaldi pedagogikoetara euskara ikasteko eta erabiltzeko.

-Irakasleen prestakuntza: IRALE-ren programa dela eta irakasleak euskalduntzen joan ziren ereduaren aldaketarekin batera.

-Senideen hautua: senideak kargutu ziren euskaraz hezitu nahi zituztela seme-alabak eta D ereduan matrikulatzen hasi ziren masiboki.

# 93-00

1993an LOGSERen ezarpenarekin batera Euskal Eskola Publikoaren legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Euskal Eskolaren Legea. Honela zioen:

Lehenengo titulua: *"Euskal Eskola Publikoa anitza, elebiduna, demokratikoa, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, partaidetzakoa, ezberdintasunen berdintzaile eta dibertsitateen bateratzaile izango da"*  
Bigarren titulua: *"Hezkuntza eskubidea nola gauzatzen den arautzen du: kalitatezkoa, doakoa eta ezberdintasunen zuzentzailea"*.

Hirugarren titulua: *"Euskarak duen tratamendua arautzen du, baita irakaslegoa euskalduntzeko plana ere"*.

Lege horrekin gaur egun ezagutzen dugun Euskal Eskola Publikoaren oinarriak finkatu ziren eta eskola bakoitzak dituen eskumenak zehaztu ziren eta ikastetxeen arteko bi sare definituz: sare publikoa eta sare pribatua.

Lege, dekretu, arau eta zirkularrez osaturiko itsaso mugitu honetan Lekeitioko Eskola Publikoa edo Lekeitioko Herri Eskola, bere ibilbidea jorratzen joan da 2000garren ikasturtean gaur egun duen Hezkuntza Proiektu Integrala gauzatu arte.

Ikasleen artean euskararekiko zaletasuna bultzatu zen: bertso-larritza, herriko kanta eta ohituren ezagutza, ipuin eta poesia jardunaldiak, euskararen aldeko ekitaldiak: Korrika...

Euskararen erabilera hedatzeko pausuak handitzen joan ziren: eskolako paisaia, dokumentazioa administratiboan, kanpoko eragile eta instituzioekin harremanak, eskolaz kanpoko ekintzetan egindako hautua...



# BIZKAITIK MUNDURA Nazioarteko hezkuntza

## 78-99

80ko hamarkada bilakatu zen Euskal Eskola Publikoaren -eta horren baitan Lekeitioko Eskola- ibilbidea finkatzeko klabea. Irakasle gaztez osatutako olatu erraldoiak, euskaraz gain, funtsezkoa bilakatu zen beste ezaugarri esanguratsu bat zekarren, "Berrikuntza Pedagogikoa" edo ausart batzuen hitzetan "Iraultza Pedagogikoa".

### "Adarra" pedagogia erakundea

Urte horietan pedagogiari loturiko hainbat talde sortu zen Hego Euskal Herrian. Horietariko bat ADARRA izan zen. Berrikuntza Pedagogikoan lerrota, Adarra, Euskal Eskola Publiko berria irudikatzen zuen irakasleen mugimendu herrikoa bilakatu zen.

*Cristina Elorzak hala dio –Adarra 1978an sortu zen. Sasoi hartan, 3000 pertsonatik gorako jardunaldiak antolatzen genituen udan. Gaur egun, ia 40 urte pasatu ondoren, erronkak antzekoak dira, desberdintasunak gainditzea eta ikasle guztientzako maila goreneko ikasketak lortzeko bideak sendotzea.*

Adarraren eraginez, Freire, Freinet, Maria Montessori, Decroly, Giner de los Rios, Eskola Modernoa... eta XX. mendeko beste hainbat pedagogo ospetsuren metodoak, materialak, irakasle-estrategiak eta antolamenduak ahoz-ahoz eta gelaz-gela landu ziren.

Maleta bete-beteta zetorren. Azkenean ere, onenak ge-neuzkan baina era egokian erabili behar ziren. Hona hemen horietako batzuk:

"Decroly" k esandakoari jarraituz "interés guñeak" lantzeko metodologia proposamenak sortu ziren, hau da, "proiektuka edo interés guñeka" arloak landuz. Proiektu batek arlo desberdinak barneratzen ditu (hizkuntza, ingurune, matematika...). Metodologia hau 3. mailatik aurrera erabiltzen da, 8. mailaraino.

"Freinet" ek esandakoari jarraituz "metodo global naturala" landu zen. Hasiera Zikloan irakurketa-idazketa prozesua garatzeko. Ikasleak astelehenetan irtetzen ziren herrira eta zerbait konkretua behatu ondoren "esaldia" ateratzen zuten. Adibidez "Parkean hostoak lurrera jauzi dira". Esaldi hori lantzen jarduten dute aste osoan. Esaldia lantzeko "freinet-en inprenta (gelatinazkoa) erabiltzen da.

"Montessori" Haur Hezkuntza: "Txokoen metodologia". Gela txoko ezberdinez osatzen da eta ikasleak txokoetatik pasatzen dira berriazko ekintzak egiten. Txokoak material espezializatuz horniturik daude. Hauek dira txokoak: matematika eta eraikuntza, etxea edo sinbolikoa, artistikoa, antzerkia, hizkuntza...

### Piaget

Duda izpi barik Jean Piageten ikuspegia izan da hogeigarren mende amaierako hezkuntza paradigma edo ereduaren eragin handiena izan duena. Bere esanetara umea izan behar da heziketaren protagonista eta horretarako biologikoki duen garapena kon-tuan hartzekoa da. Hortik etorriko da Lekeitioko eskolara ikasle bakoitzaren garapen eta ikas erritmoak errespetatzeko joera edota "aurkikuntza" pertsonalaren garrantzia gelan proposatzen diren irakasle-ikas prozesuetan.

### Wallon

Henry Wallon frantses psikologoak afektuen eta sentimenduen garrantzia azpimarratu zuen ikasleen garapen eta heziketa prozesuan. Bere esanak jarraituz, Lekeitioko eskolaren mundu afektiboa lantzen hasi zen irakasle-ikasle arteko tratu orokorrean, gelako tutoretzetan edota sexualitatea eta afektibitatea lantzeko berriazko programetan.

### Lapierre-Acouturier

Batez ere Frantzia sortutako psikomotrizitateko eskolaren ikuspegiak osotasuna eman zien ordura arteko beste ikuspuntu pedagogikoei. Haur Hezkuntzaren garrantzia aitortuz, laster batu ziren adin honetako irakasleak gorputzaren, pentsamenduaren eta sentimenduen lotura adierazten zuen teoria eta praktika honetara. Horren ondorioz heziketa fisikoa lantzeko materialak eta gimnasioen itxurak moldatuko ziren.



# 00-14 IKAS KOMUNITATEAK

2000. urteko apustua.

**“Ikastetxea eta bere testuinguru sozial eta kulturala eraldatu eta desberdintasun guztiak gaindituz, informazioa gizartearen beharrezkoak diren konpetentziak bultzatuko dituen proiektua da Ikas Komunitatea”**

Ikas Komunitatearen ezartze prozesuak aurreko oinarri pedagogikoen zaharberritzea ekarri zuen. Horren ondorioz, nazioarteko hezkuntzan kalitate goreneko arrakasta lortzen ari ziren autore eta esperientziak Lekeitioko Eskolara egokitu, heziketa aurrerakoien oinarri sendoak ezarri ziren. Ondoko hauek dira horietako autore esanguratsu batzuk:

## Freire

Paulo Freire, hogeigarren mendeko pedagogo ospetsuenaren ildo etikoa eta heziketa konpromisoari jarraituz bi alde azpimarratu zituen eskolak. Batetik eskola komunitatea osatzen duten eragileen arteko elkarriketak duen garrantzia, eta bestetik aukera gutxien dauzkaten ikasleekiko elkartasuna. Ezaugarri horietan oinarrituz, eskolako erabaki guztietan sende eta beste pertsona batzuen parte hartzea ahalbidetzen da Batzorde Mistoen bidez edota egitura desberdinetan elkarlanean. Bestalde, aukera gutxien duten ikasleek hezkuntza arrakasta izan dezaten berriazko estrategiak antolatzen dira: elkarrekintzako taldeak, tertulia dialogikoak, liburutegi tutorizatuak, eta abar.

## Vygotsky

Lev Semionovich Vygotsky errusiarra da, gaur egun, Nazioartean ospe eta eragin handiena duen psikologoa. Berak eta bere taldeak egindako ikerketen arabera, ezagutzak pertsonen arteko elkarrekintzetan sortzen dira, gainera, ikasleak duen garapeneren aurretik doaz eta, ez hori bakarrik, ikasketa beti dago testuinguru sozial jakin batean txertaturik. Horiek guztiak kontuan izanik, kalitate goreneko ikasketak bultzatzen dira eragile desberdinak gelako jardueretan inplikaturik: sendeak, DBHko boluntarioak, herritarrak, ikasle nagusiak...

Xabier Iturriaga *Ez-di. Iturbekeri*  
Lekeitioko eskolako zuzendaria

Bizkaian, elkarrekintza bultzatzen du Ikas Komunitateak proiektuak, eta hori darabilte dozena bat eskolak; tartean, Lekeitiokoak.

## «Elkarrekintza duten bitartean, ezagutza sortzen dute umeeek»

Natalia Salazar Orbe Lekeitio

Ikas Komunitateak deritzen hezkuntza ereduak darabilte duela 12 urtetik Lekeitioko eskola publikoan. Ikastetxeen dekomokratizazioaren aldeko eredu gisa aurkeztu du Xabier Iturbe (Lekeitio, 1960) zuzendaria. Ikastetxeen Arteko Topaketak egin berri dituzte eskolan bertan, eredu horri buruz eztabaidatzeko.

**Granada, Badajoz (Espainia) eta Terrassako (Herrialde Katalanak) ikastetxeekin batera egin berri dituzte topaketak. Zer dira?**

Ikastetxeen Arteko Topaketak proiektuan sartuta gauden guztiok Ikas Komunitateak deritzen proiektu nagusi baten parte gara. Gure helburu nagusia da gure ikasle guztiak eskola arrakasta izan dezaten lortzea. Emaitza horiek, gainera, normalean ez dira adimenarekin lotuta egoten.

**Zeintzuk dira, orduan, arazo nagusiak?**

Sarri ez daukate ikasketekin lotutako ohiturarik, edo ez dute testuinguru akademiko bat, edo gaur egungo egoeran familiak ez dabilta oso ondo, edo etorkinak dira, eta kostatu egiten zale hona egokitzea... Gutxienez kasuan izaten da adimen arazo bat.

**Zelan lantzen dituzte arazo horiek?**

Ikastetxeok batu eta ikusi egiten dugu gaur egun nazioartean zein jardura edo estrategia ari diren emaitza onak ematen. Horiek gure ikastetxeetan planteatzen

da. Gaur egun, eskolatik aparte hainbat gure daude informazioa lortzeko, eta irakasleok ere ez daukagu lehen geneukan boterea. Eskolak askoz ere eremu zabalgara batean planteatu behar dira. Eskola dagoeneko ez da eremu pedagogiko didaktiko hutsean kokatzen den instituzio bat. Atal akademikoak ardatza da, nola ez; gure ikasleek notarik onenak ateratzea dugu helburu. Hala ere, horrez gain, beste funtzio batzuk ere bete behar ditu.

**Zeintzuk dira funtzio horiek?**

Adibidez, pertsona gisa hezteak, guretzat elkarbizitzak garrantzi handia hartzen du. Horrez gain, konturatu gara gaur egungo eskolek lan egin behar dutela, ezinbestean, gizarteko beste eragile batzuekin. Ezin gaitzek burbula batean sartuta egon.

Esaterako, sendeak. Nazioarteko ikerketek berretsi dutenez, gurasoen parte hartzeak eskolaren kalitatea nabarmen handitzen du. Zenbat eta parte hartze sakonagoa izan, emaitza akademikoak eta ikastetxearen hezkuntza kalitatea askoz ere handiagoak dira. Gela barruan ere parte hartu behar dute, tutoreekin batera eskolak ematen; baita erabakietan ere... Ikastetxea demokratizatu egiten du horrek, batetik, eta, bestetik, denon artean, helburuak ezartzen ditugu.

**Erraza da gurasoen parte hartzea?**

Irrikan egoten dira. Ikastetxeen, batzorde mistoetan —ikasle, ira-



kasle eta gurasoek osatutakoak—edo elkarrekintzako taldeetan—gela barruan—, asteon, esaterako, 50 gurasok hartu dute parte. Guk zorria daukagu. Izan ere, institutua ere hemen ondoan daukagu; DBHko lagarren mailako 20 ikasle etortzen dira astero. Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako haurrei matematika eta hizkuntzak irakastera, boluntario gisa.

**Eskolak emateko prestatu egiten dituzte ikasleak?**

Adibide bat jarriko dut. Pentsa DBHko ikasleak datozela nire gelara hizkuntza lantzerako. Gela lau taldetan banatuta daukat. Talde batean liburu klasiko bat irakurtzen ari dira —tertulia estrategia ere erabiltzen dugu—. Bospasei urte liburuak irakurtzen eta komentatzen daude nirekin. Beste talde batean, ordenagailuetan daude, beste pertsona nagusi batetik, liburuan irakurri dutenetik esanguratsuenak idazten. Eta beste talde batean, irakaslearekin dago beste ikasle multzo bat gramatika lantzen.

Ordu erdilik ordu erdira, taldez aldatzen dira umeeak. Ordu eta erdian, umeeak hiru taldetan berebetan jardun dira lanean. Izan ere, talde txikietan banatuta daudenez, ez dago denbora galtzerik. Esprint baten moduan, azeleratu egiten dira ikasketak.

**Zuen hezkuntza proiektu hainbat lekutan aurkeztu duzue.**

Bai, Galizian, Gaztelan, Extrema-

duran, Katalunian... Leku askotan ibili gara. Errioxan eta Nafarroan ere proiektua ezarri guran dabilta. Merkatu pedagogikoan hainbat proiektu daude. Hau, ordea, hori baino gehiago da. Proiektu hau ikastetxeen proiektu bat da; gurasoek, herriko kirol eta kultur taldeek zelan parte hartu lortu nahi izaten da, sendeek, boluntarioek... Parte hartze hori, betiere, umeak eta emaitza akademikoari begira dago. Geletan elkarrekintzako taldeak antolatuta behar dira. Izan ere, umeek euren artean elkarrekintza duten bitartean, ezagutza sortzen dute.

**Bizkaiko beste ikastetxeen batek proiektu hori darabil?**

Bai, dozena batetik gora daude.

**Beste ikastetxeetan zer nolako jardura aurkitzen duzue?**

Harrituta entzuten gaituzte. Izan ere, ikastetxe askotan ez dago iparra markatzen duen eredu bat. Batzuetan bai: Amara Berri ereduak, esaterako. Horiek, baina, %10 dira. Ikas Komunitateak iparra markatzen duen proiektu integrala da, guztien parte hartzea ahalbidetzen duena.

**Gurasoek zelan hartzen dute parte?**

Sei urtekoen gelan, esaterako, ingelesa lantzerako datozen gurasoak daukagu. Askok maila akademiko izan ez arren, ahazko ingelesa lantzeko moduko maila badauka-

Horrenbeste autore eta gero, Pedagogiako titulua lortzeaz zaude. Hitzako elkarriketa horrek eta hurrengo orrialdeetako arbeleko azalpenek lizentziatuko zaituzte.

## Flecha

Ramon Flecha, bilbotar soziologoa, gai izan da hemen aipatu diren eta beste zenbaiten teoria eta ekarpenak lotuz “ikasketa dialogikoaren” proposamen osatua egiteko. Ikasketaren ikuspegi horretan oinarriturik, berak eta Bartzelonako Unibertsitateko CREA taldeak Ikas Komunitatearen proiektua martxan ipini zuten laurogeita hamarkadako amaieran. Bimilagarren urtean Lekeitioko Eskolak bat egin zuen proiektuarekin eta horren garapenean aritu izan da azken hamabostaldian.



# A: JRR EKARI PRAKTIKOAK

La Vermeda Sant Marti  
School Development Program  
Success for all  
Accelerated schoolss Project



# IKAS KOMUNITATEAK

# CREA

# Included

# OINARRI ZIENTIFIKOAK

## PEDAGOGIA

Freire, Apple, RogoffWells...

## PSIKOLOGIA

Vygotsky, Mead, Brunner, Cole, Scribner...

## SOZIOLOGIA

Habermas, Giddens, Castells, Beck, Flecha...

# HELBURUAK

Euskal gizarteak dituen erronkei aurre esin herri gintzan parte hartuz.

Ikasle guztien berdintasuna eta integrazioa bultzatu

Ikasleen gaitasun afektibo, sozial, Pertsonal, kognitibo eta motrizak garatu.

Ikastetxe eta ikasgelako kudeaketa demokratizatu.

## ZITABEAK

EMAITZA  
AKADEMIKOEN  
HOBEKUNTZA

Elkarrekintzako taldeak.  
Tertulia literario dialogikoak.  
Liburutezi tutorizatuak.

HEZKIDETZA  
ELKARBIZITZA

Ikasleen foroak  
Ikasleen asanblada.  
Arantegi komunitarioak.  
Hezkidetza Elkarbizitza batzorde mistoa.

PARTE HARTZE  
DEMOKRATIKOA

Batzorde mistoak.  
Geletako guraso ordezkariak.  
Guraso elkarteak.  
Guraso asanblada.

SENIDE ETA KOMUNITATEAREN  
PRESTAKUNTZA

Alfabetatze.  
Euskalduntze.  
Informatika.  
Tertulia literarioak.  
Ikas komunitateak.

## PROIEKTUAK eta PROGRAMAK

TALENTUJAZ

BAKE PROIEKTUA

ZIENTZIA ROBOTIKA

ESKOLA NORMALKUNTZA

KALITATEA HEZKUNTZAN

ESKOLA AGENDA 21

BIDELAGUNA

MINTEGIAK  
CURRICULUMA

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

JOLAS KOOPERATIBOAK

PARTEKATUJAZ IKASI

ELEANIZTASUNA  
NATURA INGELESEZ

HEZKIDETZA ETA GENERO  
INDARKERIA PREBENTZIO PLANA

ESKOLA 2.0

IKT





Guztiona

Askea

Hezkidetzailea

ZORAGARRI



Euskalduna



Lekeitiarra



Berdintzailea





Kalitatezkoa

Aurrerakoia

Unibertsala

Berritzailea

**HEZKIDETZA ELKARRIKETZA Programa**

**Programa de ENFOQUE COMUNITARIO**

# Eskola Paperetan

Hik hasi, Aula de infantil, Cuadernos de pedagogía... Eskola gida, buletinak...

## Adolescentes que enseñan en Infantil

FRANCISCO LUNA, BEBELE • CRISTINA BLOCA, Tereixa Infante (Bilbao), Cristina Buitrago (Lekeitioko Eskola Publikoa) eta Cristina Buitrago (Lekeitioko Eskola Publikoa)

En marzo, un grupo de alumnos y alumnas de 4º curso de ESO, del instituto, dedica una hora de su horario lectivo a colaborar y ejercer como monitores en las tres aulas de cinco años de la escuela pública de esta localidad. La idea es mejorar la relación y la convivencia entre diferentes edades y ofrecer posibilidades para que el alumnado de 4º curso asuma responsabilidades. Es uno de los frutos de la estrecha colaboración entre la escuela y el instituto.

z gain, beste funtzio batzuk ere behar ditu. **Lekeitioko Eskola Publikoa** dira funtzio horiek? **Lekeitioko Eskola Publikoa** dez, pertsona gisa heztearaz, elkarbizitzak garrantziki hartzen du. Horrez gain, iratu gara gaur egungo eskolaren

**Eskolaren funtzioak** Adibideak DBHko ikasleak harkizaldetan batean liburu klasiko bat irakurtzeko

# LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEA hitza



## Karmele Alzueta saria lortu du Lekeitioko Eskola Publikoak

Ilas Komuniteak proiektuari esker lortu du Eusko Jaurlaritzak ematen duen saria; unen arteko ezberdintasunak gainditzea du xede proiektu pedagogiko eta komunikatibo denak.

**Durango** kanporaketan nagusitu egin dira Lea-Artibaiko bertsoari gazteak

**«Irabazterak»** doa Mikel Elgezabal Espainiko Triatloi Txapelketara

**Gaur amaituko da Iñaki Bengoa Busturiko bizilagunaren aurkako epaiketa**

**Hamar proiektugaz hasi dira beharrez Gernika-Lumoko 'Lobak'**

## Personas mayores voluntarias en las aulas de 5 años



La participación de diversas personas mayores en el proceso de enseñanza y aprendizaje en las aulas de 5 años de la escuela pública de Lekeitioko Eskola Publikoa. Se trata de una iniciativa que pretende mejorar la convivencia y el aprendizaje de los niños de 5 años a través de la experiencia de las personas mayores.

El desarrollo de la actividad de voluntariado de personas mayores en las aulas de 5 años de la escuela pública de Lekeitioko Eskola Publikoa. Se trata de una iniciativa que pretende mejorar la convivencia y el aprendizaje de los niños de 5 años a través de la experiencia de las personas mayores.



## Lekeitioko Eskola: una escuela 0-3 de calidad para todas las personas

Desde los cursos 2010-2011 y 2011-2012, los servicios infantiles de la concejala de Lekeitioko Eskola Publikoa, dedicados a ofrecer una educación de máxima calidad para todos nuestros niños y niñas, cuentan con el proyecto de excelencia que, a nuestro entender, garantiza esta máxima calidad de aprendizaje.

El objetivo del proyecto de excelencia es garantizar la máxima calidad de aprendizaje de todos nuestros niños y niñas, a través de una educación de máxima calidad para todos nuestros niños y niñas.



El niño de la imagen está jugando con sus compañeros en el aula de 0-3 años de la escuela pública de Lekeitioko Eskola Publikoa.



El grupo de personas que se ve en la imagen está participando en una actividad comunitaria organizada por el Ayuntamiento de Lekeitioko Eskola Publikoa.

## Urrezko Bikain ziurtagiria lortu dute Azarok eta Lekeitioko Herri Ikastetxea

Zelan lantzen dituzue arazo horiek? Ikastetxeok batu eta ikusi egiten dugu gaur egun nazioartean zein jarduerak edo estrategia ari diren emaitza onak ematen. Horiek gure ikastetxeetan planteatzen

mokratizatu egiten dituzte, eta, bestetik, dugu gaur egun nazioartean zein jarduerak edo estrategia ari diren emaitza onak ematen. Horiek gure ikastetxeetan planteatzen

## Coeducar en la sociedad de la información

Coeducar es educar para una sociedad más igualitaria, en la que las diferencias de sexo no sean motivo de exclusión. Es la escuela infantil la que mejor puede ayudar a gestionar la diversidad.

El objetivo de la actividad es promover la igualdad de género y la coeducación en la sociedad de la información. Se trata de una iniciativa que pretende mejorar la convivencia y el aprendizaje de los niños de 5 años a través de la experiencia de las personas mayores.



## Per què cal parlar d'igualtat a l'escola infantil?

Les nenes i els nens són iguals i mereixen el mateix tractament i respecte. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

El treball amb igualtat a l'escola infantil és una oportunitat per millorar la convivència i el respecte entre tots els nens i nenes. És important parlar d'igualtat a l'escola infantil perquè així podem garantir que tots els nens i nenes tinguin les mateixes oportunitats i recursos per aprendre i créixer.

## esperientziak

### GURASOAK IRAKASLE

Gurasoak gurasu gurtu dira Lekeitioko Eskolan, eta ereduaren aniztasuna bultzatzen gain ikas-komunitate erakitzen lagunduta.

Lekeitioko Eskola Publikoak gurasoak gurasu gurtu dira Lekeitioko Eskolan, eta ereduaren aniztasuna bultzatzen gain ikas-komunitate erakitzen lagunduta.

Lekeitioko Eskola Publikoak gurasoak gurasu gurtu dira Lekeitioko Eskolan, eta ereduaren aniztasuna bultzatzen gain ikas-komunitate erakitzen lagunduta.

Lekeitioko Eskola Publikoak gurasoak gurasu gurtu dira Lekeitioko Eskolan, eta ereduaren aniztasuna bultzatzen gain ikas-komunitate erakitzen lagunduta.

Lekeitioko Eskola Publikoak gurasoak gurasu gurtu dira Lekeitioko Eskolan, eta ereduaren aniztasuna bultzatzen gain ikas-komunitate erakitzen lagunduta.

Lekeitioko Eskola Publikoak gurasoak gurasu gurtu dira Lekeitioko Eskolan, eta ereduaren aniztasuna bultzatzen gain ikas-komunitate erakitzen lagunduta.

Lekeitioko Eskola Publikoak gurasoak gurasu gurtu dira Lekeitioko Eskolan, eta ereduaren aniztasuna bultzatzen gain ikas-komunitate erakitzen lagunduta.

**2012** **IKAS-KOMUNITATE** **IKAS-KOMUNITATE** **IKAS-KOMUNITATE**

**2012** **IKAS-KOMUNITATE** **IKAS-KOMUNITATE** **IKAS-KOMUNITATE**

**2012** **IKAS-KOMUNITATE** **IKAS-KOMUNITATE** **IKAS-KOMUNITATE**



## AMETS TXIPRISTINAK

Ametsa guztiona da: Guraso, seme-alaba hezitzaile, sukaldari eta zain-tzaile, maisu-maistra, Udal eta kultur zein kirol talde... denok batera etorkizunaren alde.

Amets bat izan nun estizko amets bat...

## Euskararen kalitatea: Ahozko euskara jasoa

Ikasi dugu batueraz idazten eta irakurtzen, ikasi dugu lekitxarrez berba egiten, baina ez gara konformatzen. Orain beste bi jauzi eman nahi ditugu. Batetik, egunerokoan euskara gehiago erabili, eta bestetik, erabiltzen dugun euskararen kalitatea handitu, bai idatzian zein ahozkoan.

## Hezkidetza-Elkarbizitza eta genero indarkeria prebenitzeko Programa

Hezkidetza eta elkarbizitza ezinbestekoak dira ikasleen harremanetarako. Gizarte aldaketan eraginez adin txikikoen hartu emanak zakartu egin dira eta gutxira arte pentsaezinak ziren jokatibideak ohiko bihurtu dira. Egoera honi aurre egiteko eskolak sortu duen proiektua aukeratu du Eusko Jaurlaritzak datozen urteetan genide, ikasle, begirale, irakasle eta herri-tarrok elkarlanean garatzeko.

Lekeitioko eskolak amets egin zuen bidegurutzean eta Ikas Komunitatearen bidexkatik abiatu zen. Zelako eskola nahi dugu gure seme-alabentzat? Zer egin behar dugu horrelako eskola lortzeko?

Ilusioa, esperantza, bizipoza, elkartasuna, etorkizuna, ahalmena, irribarrea, utopia, eta guztion arteko elkarlana, horrexek dira ametsaren osagaiak. Zer izango zara handitan? Medikua, idazlea, okina, informatikoa, abeslaria edo dentista. Eguneroko mugak birrinduz seme-alaben etorkizunean pizten da ametsa.

Maitasunaren eta ausardiaren tresna derrigorrezkoa da ametsa, mundua hobetzeko arrazoiak eta gogoak lotzen dituelako. Amesten duen herriak badaki nolako eskola eraiki eta eskola ameslariak baita nolako ikasleak hezitu ere.



## Zientzia Programa

Kuriositate zientifikoa piztea eta zientziek erabiltzen dituzten metodoak ezagutzera eskolaren lerro estrategiko nagusienetarikoa da. Zientzia Proiektua Haur Hezkuntzan garatzen hasi eta LH-ko seigarren mailan ROBOTIKA-rekin borobiltzen da. Bitartean makina bat esperimendu, froga, hipotesi eta material ugari erabiltzen dira laborategian, gelan eta ingurunean.

## Talentuz

Talentuz proiektuak Haur Hezkuntzako ikasle guztien gaitasun eta adimenak birkaintasunerantz bideratu nahi ditu. Horretarako, espazioen berrantolaketarekin batera metodologia aldaketak proposatzen ditu ikasleen arteko elkarrekin-tzak sustatuz eta ikas guneak espezializatuz. Proiektuaren garapenerako ezinbestekoa da senide, ikasle, irakasle eta boluntarioen arteko elkarlana INCLUD-ED txostenak gomendatzen dituen arrakasta-jardueren ezarpenean.

## Eleaniztasun Proiektua

Euskaraz bizi, gaztelera ikasi eta ingelera berba egin. Hiru hizkuntzak ikastea eta erabiltzea ezinbesteko exigentzia bihurtu da gizarte eleantzetan. Haurtzarotik ari gara lantzen hirukuntzok eta gure helburu nagusia da ikasle guztiak 6. maila amaitzen dutenerako Europar Batzordeak gomendatutako goi mailako ezagutza izatea.

## Eskola 2.0

Informazio gizartearen ordenagailuak, arbel digitalak, mugikorak, sareko baliabideak... guztiak bihurtu dira gelako ezagutzaren euskarri. Europar Batasunak "Horizon 2020" programan ezarritako helburuekin bat eginez Lekeitioko Eskolak teknologia digitalekiko hautua aspaldi egin du ordenagailu pertsonalak goi zikloetako ikasleen esku jarritz.

# Aurrera begira



R.M. AZKUE IKASTOLA

# 50 urte brankaz



“No hay vascongado que no esté convencido de que la base de nuestra regeneración social, política y aún moral es la implantación de la escuela netamente vascongada. Es también innegable (...) que el elemento oficial está en este caso, como en otros muchos puntos completamente divorciado del verdadero pueblo euskaldun; siendo por consiguiente preciso que sean particulares las iniciativas por la creación de nuestra escuela”.

*Resurrección María Azkue.*


## IKASTOLEN MUGIMENDUA

Ikastolen mugimenduaren behin betiko erronka 1960tik aurrera bizi izan du Euskal Herriak. Behin betikoa diogu, aurretik, hamaikatzeko ekinaldi izan baitziren, **Resurrección María Azkue** berak bultzatuta XIX. mendearen amaieran, eta beste hainbat eragileren eskutik XX. mendearen lehen hamarkadatan.

Azkuek goian aipatzen dena idatzi zuenetik 1960ra ia mende erdi pasatu zen. Baina berak aldarrikatzen zuen bezala, inizatiba partikularren eraginez dinamizatu zuten ikastolen mugimendua 60ko hamarkadan. Eragin partikularren inizatibaz baino partikular askok eta askok arnastutako herri edo herritar inizatibak ekarri zuen Europan bakana den hezkuntza sistemaren erabateko bultzada eta finkapena. Zentzu horretan, Azkueren adierazpena hobetu beharrean geundeke, herri mugimendua izan baitzen ikastolen mugimendua aterabide definitiboan lerratu zuena.

Bestalde, deigarria da mugimendu hori debekuak eta ezeztapenak indartsuen zeuden garaian indartzen hasi izana. Agian inizatiba partikularretik haratago, norabide bereko hainbat ekimenen eta indar uholdearen argudioak behin betikotu zuen gaur egun oraindik eraikitzen ari garen Euskal Sistema Propioaren eraikina. Arrazoia zuen lekeitiar apaizak euskal birloratzearen (“regeneración” erabili zuen berak) ardatzetariko bat Euskal Eskola erabat euskaldunaren bidetik etorriko zela esatean. Eta saiakera ugariaren ondoren, gure aurreko mendearen bigarren zatia izan da euskara umeen eskoletan ezarri izan duen garaia. Ikastolen mugimenduaren eta, beraz, Euskal hezkuntza sistemaren behin betiko oinarriak 1960ko hamarkadan kokatu behar ditugu. Gorago aipatzen den bezala, Azkueren beraren Kolejio-Ikastechea, Euzko Ikastolen Batza eta abarrak lehen urratsak izan ziren, baina **Elbira Zipiriaren “Etxe eskolak”** urte ilunetan ekiniko lan eskergari emango dio erreleboa herriz herri erdi isilpean baina olio orbain ezabaezina bailiren euskal herrietan barreiatzen hasi zen Euskal Eskolaren haziak.

Lekuan lekuko guraso abertzale eta euskaltzaleek, Elizaren nolabaiteko babesa eskaintzeko arriskatu ziren apaiz nahiz bestelakoek, herri-



Ikastolako lehenengo taldea, Mertzedarioetan, *Maribi Erkiagaren jaunartze egunean, 1964ko maiatzaren 20an. Ana Mari Uribe andereñoaren aurrean, goitik behera eta ezkerretik, eskuinera: Deun Sarria, Sorkunde Grande, Jesus Zelaia, Maribi Erkiaga, Ane Murelaga, Edurne Murelaga; Nekane Leniz, Amantzio Goitia, Jaione Murelaga, Jose Anjel Goitia, Edurne Grande, Jose Enrike Amillategi, Mari Neli Gonzalez eta Patxi Agirre.*

tar arruntek, gazte ausartek (andereñoek),... erronka berriaren aldeko apustu sendoa egin beharra zegoela erabakita, buru-belarri ekin zioten lanari. Euskaraz eta euskaraz bakarrik ekingo zioten txikien heziketari. Elbira Zipitriarena izan zen jarraitu beharreko pedagogia eredua; eta gogoia, euskaltasuna eta lanerako grina, aktiborik garrantzitsuenak. Euskara eta hezkuntza uztartzeko ekimen berritua sortu zen. Aurre egin behar zitzaion, batetik, euskararen etenik gabeko gainbeherari; eta, bestetik, Euskal nortasuna edo izaera desgertarazteko borondateari; hori azpimarratu beharko genuke garai hartan guraso eta herritarrek hartutako bidearen hastepenetan eta ardatzean. Beste era batera esanda, zer ez zuten nahi argi zeukatenen buruan zegoenak eragin zuen han-hemenka pixkanaka-pixkanaka baina tarterik utzi gabe hedatuz joan ziren ikastola txikien sorrera. Bide ofizialetik apar-

teko ildoak marrazteko prest zeuden; eta zentzu horretan, defentsa mekanismotik abiatuta eskola eredu alternatiboa eraikiz abiatu ziren, zalantzarik gabe. Mugimendu bat abiarazi zuten; herri-mugimendu berri bat, zeinetan eskola-komunitateak lau oinarri edukiko dituen: gurasoak, andereñoak, umeak eta herritarrek (laguntzaileak). Guztien artean aurre egingo zieten eguneroko beharrei eta etorkizunari begirako proiektuei: azpiegiturak, finantzaketa moduak, profesionalen prestaketa, ikasleria bilatu, aliantzak bilatu edo ekimena jendarteratu, hausnarketa, ikuskaketa, ...

Zailtasun eta erronka mapa hau ezin izango genuke ulertu “zapalketari” aurre egin beharreko konbentzimendu finkoa, ildo ofizialaren ukapenarekiko sentimendua, elkartasun jarrera orokorra, ... ez bage-nitu identifikatuko.



**Resurreccion Maria Azkue Aberasturi**, 1864ko abuztuaren 5an Lekeitioan jaioa, gure hizkuntzak izan duen inoizko euskalaririk bikainenetarikoa eta saiatuenetarikoa bat. Apaiza 1888tik, Bilboko Institutuko euskara-katedra lortu zuenetik, bertan bizitzen gelditu zen. Euskal kulturaren aldeko langile amorratua, Euskaltzaindiaren sortzaile nagusia eta haren lehendabiziko lehendakaria bilakatu zen 1919an. Bere lanen artean, “Diccionario Vasco-Español-Frances”, “Morfología Vasca”, “Cancionero popular vasco”, “Gipuzkera osotua” eta “Euskalerrriaren Yakintza” aipa ditzakegu. Musikalaria eta toponimo asmatzailea ere, zartzueta, opera eta oratorioak idatzi zituen. Toponimoen artean, Neguri eta Jolaseta esaterako. Bilbon hil zen, 1951ko azaroaren 9an, Ibaizabal erreka erori eta egun batzuetara.



**Elvira Justa Zipitria Irastorza**, Zumaian jaioa 1906ko maiatzaren 28an. Maistra, ikastolen sortzaileetarikoa, euskararen sustatzaile eta emakumeak baztertearen kontrako borrokalari izan zen, frankismoaren denborarik ilunenetan. Euskara eta pedagogia berritzailea, Piaget, Freinet, Makarenko eta Montessori pedagogoen teoriak ekartzen lehena. “Andereñoen andereño” deitua, bera izan zen euskal eskolaren gerra aurreko eta ondorengo mugimenduak lotu zituen. Gau eskola zuen antolatuta, helduei euskara irakasteko, baina batez ere, euskaldun zaharrak alfabetatzeko. Erdal gramatikako terminologia baztertuta, bera dugu lehenengoz NOR-NORI-NORK, hitz horiek, erabiltzen. Donostian hil zen 1982ko abenduaren 26an.

## LEKEITIOKO RESURRECCION MARIA AZKUE IKASTOLA

### Sortze prozesua eta lehen pausoak (1964-1975)

Lekeition 1964an aurkitzen ditugu gaur egun **RESURRECCION MARIA AZKUE** izena daraman ikastolaren lehen urratsak, eta gorago irudikatu dugun testuinguru orokor horren barruan. Bilbotik etorritako EAJko zenbait kidek (Julita Berrojalbiz eta besteren bat) eman zuten lehen urratsa, eta herriko beste batzuk animatu: Jose Grande eta Garaiko Juan Loizate abadea ere tartean izan ziren. Ana Mari Uribe 16 urteko neska gaztea konbentzitu zuten; eta Solanotar ahizpak lagun izanik, etxez etxe ibilbidea egin zuen garai hartako ikastolak: Gaur egun MARINA taberna-kafetegiaren gainaldeko pisua, Goiko kaleko lokal bat, Abade etxe zaharra, Konpainia edo Nautika legez ezaguna zen eraikineko

gela handi bat izan ziren behin-behineko ikastolaren kokaleku, modu "egonkor" antzera Gizarte Etxean kokatu bitartean. 1964tik -1975erarteko epea dugu berau. Leku batetik bestera joatearen arrazoiak desberdinak izan ziren: salaketak, umeak egoteko "baldintzarik eza", pisua libratu beharra,...

Herriko esamesak gainditzea ere ez zen lan erraza: egoera fisiko desegokia, dirurik eza, umeek zer ikasi behar zuten egoera hartan, finantzaketa kontuak, eskola liburua nolabait eskuratu behar gero titulazio izan zezaten ikasleek, Euskara Batua, euskararekin nora?, .... Etapa horretan, **COLEGIO URIBEK** eman zion halakoren baten babes legala, eta horrek aurre-pauso handia esan nahi zuen ikastolarentzat.



60ko hamarkadan, Francoren denboretan, andereño izateko, batez ere Euskal Herrian, bete behar zirenak, eta gaur egungoak ez dute zerikusirik.

Askoz zorrotzagoak zirela nabari da



Unai Zabala, ikastolako lehenengo lehendakaria, Natxirekin batera zuhaitza landatzen ikastola aurrean, 1980ko abenduaren 28an. Herri erakunde desberdinetan gertatu ohi den bezala, gidaritzatzaile ofizioaren praktika ardatzetariko izan da Lekeitioko ikastolaren ibilbidean. Legalitatearekin lehian sarritan, baina azkenik erakundea egonkortze bidean, eginkizun franko eta astunak suertatu zaizkie lehendakari eta juntakideei. Unai, Fabian, Ander, Bull, Josebe, Jose Mari, Miren, Goizane... Eratzeaz aparte langileen ekipoa osatu eta zaindu, beste gurasoekiko harremanak landu haien konplizitatea bilatuz, azpiegiturak hobetuz, finantza baliabideak lortuz,... Lan ederra hauei tokatu zaiena. Lana eta ohorea ere errekonozitu behar, hezkuntzari dagokionean herrigintzaren esparru horretan ekarpen itzela egin baitute. Askotan beraien seme-alabei zegozkien dedikazio orduak besteen mesedetan ipintzea, ez baita ahuntzaren gauerdiko eztula! Biba zuek!

Legalitateari lepoa emanda, nolabait legearekiko obligazioak ere betetzen ari ginela edota legearen parean jardun beharra derrigorrezkoa izan eta haren ubidean ia ezinka egokitu beharra eta azkenik erakundea egonkortze bidean, eginkizun franko eta astunak suertatu izan zaizkie lehendakariei.



Lekeitioko herriak **Olentzeroren** berreskurapena, 1976eko Gabonetan ikusi zuen. Beharrezko jotzen genuen ikastolatik, ohitura hau berreskuratzearena ez ezik herrira zabaltzearena; hartara, herriko gazte eta elkarteak, eta eskolako maisu batzuen elkarlana baliabide preziatuak bihurtu ziren. Ikastolatik atera ziren ideia eta egitasmoa, eta figura bera, Bergara kaleko Makonak elkartean egin zen. Hain handia, burua desmontatu egin behar izan zitzaiola, atetik ez zen irteten eta. Abenduaren 23an atera zen, beste lekuetan baino egun bat arinago. Berreskuratzearen auzolanean, besteak beste, Kastillatik Lekeitiora etorritako maisu batzuk zeuden ideia hauekin bat zetozenak eta lanerako prest gainera. Hauek ere beren umeekin Olentzeroren jaiari partaide izan nahi zuten, baina Gabonetan euren herrira joan nahi zutela eta ea eguntxoren bat edo beste ospakizuna aurreraterik zegoen planteatzen zuten. Nola ez?. Harrezkero, egun horretan, eta sekula 22an ere, atera zaigu ikazkin eskuzabala, baina, gaur egun ez du ematen data aldatzeko inolako asmorik dagoenik.



**ITXAS SOINUA** 1972an sortu zen, ikastolatik, Colegio Uribe, sasoi hartan. Joseba Saez Ortuondo, Gorka Sierra, Jose Benantzi, eta Jose Ramon Artetaren gidaritzapean, Euskal Herritik, Bartzelona, Madrid eta Europa osoan zehar bizitza arrakastatsua izan zuen lekeitiar abesbatzak. Europako ahots zuridun onenetakoa izandakoa, urtero abuztuan gauzatzen den bere izen bereko “Lekeitioko Itxas Soinuaren Nazioarteko Musika Jaialdia” sortu eta antolatzen jarraitzen du. 2011. urtean Lekeition bertan berriro elkartu eta Ondarroako ibilaldiaren alde, kantu afaria egin zuten. Argazkian.

Bartzelonako “Palau de la Musica”n, 1980ko azaroaren 6an.



*Itxas Soinua (1988)*

Zenbat urte edukiko zuten lehenengo lerroko umee? Zazpi? Zortzi? Kantatzen baino lehenago ahoa mugitzen ikasi zuten: kontzertua zegoen guztietan, zuzendariak isiltzeko eta ahoa mugitzeko agintzen zien –hala ere, bazegoen kontzertuko berotasunarekin animatu, eta kantatzen hasten zenik–. Geroago hasiko ziren beste guztiak bezala dena emanda kantatzen.

Azken lerroko nagusiek, asko botata, 18 urterekin utziko zuten koroa, lehenago uzten ez bazuten, behintzat. Koroa utzi arteko udetan, Mendexan, Ipasterren edo dena delakoan jaiak zirenean ere, kantatzera joaten ziren goizeko 10:00etan, puntual –nor atrebitu berandu joaten!–. Ikasturtean zehar ere, noski, egiten ziren entseguak.

Zuzendariak ikaragarriko agirakak egin arren dena ematen genuen kantatzean. Famatuak dira Josebaren eta Gorkaren haserrealdiak; ez hainbeste, Benantzio edo Jose Ramonenak.

Gezurra badirudi ere, Itxas Soinuak Euskal Herriko hamaika zokondotan ez eze, besteak beste, Londresen, Madrileko Teatro Realen, Frantziako Toursen, Erroman eta Bartzelonan, kantatu zituen El Arca de Noé, Boga Boga, Dadme Albricias, O Sacrum, Xarmengarria Zira, Tulerunt...

Kontzertuetan, entseguetan, autobusean... kantatzea zen kontua. Eta Itxas Soinuan ibilitakook kantatzea eguneroaren ardatzetako bat izan genuen aldi batez, eta hori zorte handia da. Hori guztia magia da.



**1970ko belaunaldia**, Euskara hutsean ikasi zuen lehengo taldea, Josemari Endeizarekin batera, ikastola San Jose kolegioko lokaletan zegoela.

**Goian:** Jabier Eiguren (Patxon), Miriam Fernandez, Guria Bilbao, Iraixe Zelaia, Zuriñe Arakistain, Jose Mari, Julen Ajuria, Joseba Sustaeta, Gorosti Txopitea,

**Erdian:** Aritz Elorza, Agurtzane Barainka, Almike Albonigamayor, Libe Gomez, Jaione Urkiaga, Urtza Iriarte, Garaibe Gonzalez, Leire Arakistain.

**Behean:** Aitor Eiguren, Koldo Badiola, Jon Elordi, Txabi Izagirre, Asier Zatika, Hilario Murelaga, Julen Markes, Gurutz Etxebarria.



Ikastola Ateako egoitza berrian finkatzeaz batera, irakasle talde gazte, sendo eta prestua osatu zen. Hona hemen, 1985eko neguan ateratako argazkia Ikastola elurtu baten aurrean. Ezkerretik hasita: Irene Uribe, Mariasun Ubiria, Antxone Telleria, Nere Legarza, Maria Eujenia Goitia, Karmen Garatea, Jose Antonio Aranburu "Natxi", Maria del Amor Perez "More", Mari Jose Ibarra, Karmen Kortazar eta Josune Laka. Beheko ilaran: Karmen Marina Arteagabeitia eta Martin Bilbao.

## Ikastola gorpuzten (1975-1980)

**1975 1980an inflexio puntu nabarmena izan zuen Lekeitioko ikastolak.** Ordurako Euskal Herrian ikastolen mugimendua herrialde guztietara hedatua zegoen eta indartsu zegoen: herri babes handiarekin, alegia. Ingurumari horretan gurasoen kooperatiba antolatzea erabaki zen. COLEGIO URIBEK erraztasun guztiak eskaini zizkion sortu berria zen kooperatibari. Haren bidez eman ziren aurrera begirako pausoak; eta, horrela, legearen aldetik eskakizunak beteta gelditzen ziren. Proiektu berri hori gorpuztera andereño-irakasle gazte talde sendoa inguratu zen, baina ez zeuden bakarrik; proiektuak herritar askoren sustengua eduki baitzuen, -nahiz eta guraso izan ez- kooperatiba kide ekarpen kuotak eginez. Ikasle kopurua ere ederra zen ordurako.

Hori guztia kontutan izanik, etapa horretan, GIZARTE ETXEAN eginiko garaia gaundituzat eman behar zela eta, ikastetxe bat behetik gora eraiki beharra argi gelditu zen, eta aurrerantzean, gaur egunera arte

egoitza nagusia izan den "Ikastola berria" jazo zen; 1980an inauguratu zen, irailean.

Etap horrek proiektua finkatzea ekarri zuen, eta garai hartan, beste herri mugimenduek bezalaxe, ikastolak ere izan zituen tentsio eta hausturak, nola ez! Baina hezkuntza proiektua orduantxe finkatu zela esan genezake. Bestalde, Euskal Herrian aldi horretan erakundetu ziren gerora Ikastolen Elkarte osatuko zuten herrialdeetako ikastolen elkarteak ere. Herri mailan garai hartan berreskuratu ziren ikastolaren bitartez OLENTZERO, jostailu pedagogikoen aldeko kanpainak, ... eta oro har euskal kulturaren aldeko beste zenbait pauso eman ere; adibidez, modu ez oso formalean, baina nagusientzako lehenengo euskarazko eskolak ere garai horretakoak ditugu. Ezin ahaztu: lehendik ere bazetorren arren, garai hartakoak dira ospe handia lortu zuen ITXAS SOINUA umeen abesbatza eta gaur egun oraindik dirauen ABUZTUKO NAZIOARTEKO MUSIKA HAMABOSTALDIK egitaraua.



1981eko belaunaldia, Zarautzko hondartzaren aurrean, Oriora egin zuten irteeran, Felix Aizpurua, Bego Gordillo eta Ana Lauzirikarekin. 1991ko udaberria.

2014ko uda. Gesaltza-Añana. Eguerdia da eta eguzkiak gogor jotzen du. Umeak Spa modukoan dabilta olgetan. Bitartean, ama, Naroa, isilik dago, gatzagari begira. Ispilu zuriak min ematen dio begietan. Hala ere, ez dio begiratzeari uzten, eta nahi barik, gogortuta, uzkurtuta, geratu zaio gorputza.

Gatzaren zurtasunean hondoratu zaio gogo. Ana Lauzirika. Aste bi ere ez dira igaro hil zela. Ezin dot sinistu. Ezer ez nekijan. Zelan pentsako neban... Ana, Ibone Arrate. Gelako bi gehiago ziren. Andereño Antxone, andereño Ana Dani, lehenengo mailan, Espejon. Anaren niki marra-duna.

Betaurrekoen atzean ezkututzen ditu oroitzapenak, baina malko errekatxo batek txirrist egin dio lehenik, eta hasperen dardarti batek atzetik. Asiskok esango lukeen moduan, trumilka, ibaiak, datozkio irudiak, eta oroitzapenak pena bihurtu zaizkio. Ondo zagoz?, galdetu dio Aitorrek. Bai. Bueno, ez dakitx.

Ibone ere joan zen. Gazterik. Aspaldi. Pirritx eta Porrotxan kanta bat hasi zaio buruan dantzan. Xantirena. Ezberdina dut irria / Ezberdina duzu negarra / Tristeena litzateke berdina izan beharra. Naroaren gelako Xanti Ibone zen. Eta Leire Urbiet. Biak. Eta Ana eta Bego beti inguruan, ondoan, kariñoa doan. Orain, Ibon da Hezkuntza Bereziko irakasle. Izan ote zuten txikitako bizipenek zerikusirik...

Haiek bai ausartak, ezberdin berdin guztiok autobusean sartu eta hara eta hona gurekin, aste-lehenetik barikura arte, etxetik urrun. Lehenengo mailan Espejora, bigarren mailan Izurtzara, hirugarrenean Gaztelura, laugarrenean Oriora, bosgarrenean Altsasura, seigarrenean Iparraldera, zazpigarrenean Doneztebera, zortzigarrenean Candanchura.

Zerrenda ez zaio ahazten. Zazpi probintziak eza-gutzeko era ezin hobea. Eta egin zituzten beste irteera eta txango guztiak... Ikastolari esker, mapan sentimenduak kokatzen daki Naroak. Ikastolaren bitartez, sentimenduen mapa eraiki zuen.

Ostera ere, Pirritx eta Porrotxan kanta batekin gomutatu da. Amets Arzallusen trebezia ikaragarria da, pentsatu du, hark bai jakin ideiei forma ematen. Gure ikastola da gure herrimina / bizitzen ikasteko euskaraz egin. Horrexegatik pozten da Naroa hainbeste, Uritze Patxirekin dabilelako. Eta horrexegatik tristatzen da hainbeste, Itziarrek ez dituelako umeak Donapaleuko ikastolan matrikulatuko. Istalazinoiak ez dauke Lekitxoko ikastoliagaz zerikusirik, esan zion. Tristezia ainguratu zitzaion barruan. Hori pentsatu balute gure gurasoek...

Zoriak Naroa ikastolara ekarri du. Irailetik aurrera, irakasle izan zituenak lankide izango ditu. Zelako sentipen bitxia... Ana, Ibone eta gainerakoak bizirik ikusiko ditu jolastokian, portxean, Peruren begiradan. Eroso egongo da, ziur. Etxean. Trankil. Euria goi eta behe, euria goi eta behe, / denok busti-busti, denok busti-busti. / Euria goi eta behe, euria goi eta behe, / Ikastolan denok ongi gaituk. Horixe sentitzen du Naroak ere. Imanol Urbietaren kantak itzelak dira, dio bere artean, indarra ematen dute, ilusioa, gauzak ondo egin izanaren poza eta lanean segitzeko kemena. Dena delakoagatik, beste batzuek ez dute iritzi bera, eta seme-alabentzat ez dute Ikastola aukeratu, baina denok gustura eta pozik egotea da gakoa, inork inori txarrik opa barik, elkarren osagarri.

Spa momentua amaitu da. Automobileraren abiatu dira. Musika martxan hasi da: IKASTOLA, GORA GURE IKASTOLA / KANTATZEN DIOGU IKASTOLARI / IKASTOLA, GORA GURE IKASTOLA / KANTA DEZAGUN DENOK.



## Identitatearen bila (1980-1993)

1980tik 1993ra, ikastolak heldutasunean sartu ziren, eta identitatearen bila zebiltzan. Garai hartan, ikastola lerro bakarreko ikastetxea izatetik bi lerroreko ikastetxea izatera heldu zen; materialgintzan beste ikastolekin batera aurre-pauso itzela eman genuen, Hezkuntza Bereziak aparteko dedikazio lortu zuen; bertsolaritza modu integratuan lantzen lehenak izan ginen; 1983an Lea-Artibaiko lehenengo IBILALDIA ospatu zen Lekeition, Aita Barandiaranen presentziarekin; gurasoekin lan sakona egin zen. Eskola kirolaren aldeko lehen plangintza arrazoituak planteatu ziren, eta bereziki emakumeen aldeko kirolaren parte-hartze aktiboaren aldeko erronkan, herriko emakumeen lehenengo saskibaloitza taldea osatu zen, adibidez; eskola-ortugintza ere garai horretan abiatu zen...

Baina aldi berean, zailtasun ekonomikoaren larritasuna jasan behar izan genuen, beste ikastola askorekin batera. Ezin albo batera utzi Hezkuntza Sistema Nazionala propioaren aldeko borrokan hausnarketa sakon-askotan tratatu- eta luzeetan murgildu ginela. EIKE zela, EEPA zela edo TITULARITATE KONPARTITUAren inguruko eztabaidak.



1989an ateratako argazkia Ikastola aurrean, nesken saskibaloiko hiru taldeak, Josu Aboitiz arduradunarekin batera. 1986-87 ikasturtean, ikastolak gorputz hezkuntzari dagokion garrantzia ematen hasi nahi dio, instalazioak berrantolatu, eta hurrengo ikasturterako lehenengo kirol jarduerak eskaintzeko gai da: saskibaloia eta futbola. Aukerak egokitzen eta aberasten aurrera eginez, 2003-2004 ikasturtean, beste ikastola batzuekin batera, eta EHUko bi irakasleren gidaritzapean, 4 urteko inbestigazio-formazio proiektuan aritu zen ikasle, irakasle, monitore eta gurasoz osaturiko taldea. Honen fruitua, gaur egungo kirol izaera, kudeaketa era programazioa.



25. Urteurreneko ospakizunak behar baino beranduago antolatu ziren, 1993ko maiatzean. Frontoiko bazkari erraldoia izan zen ekitaldi nagusia, baina ikastolako lehenengo gurasoak ere batu nahi izan genituen. Ate nagusiaren aurrean: Patxi Agirre, Jose Grande, Nieves Solano, Ane Uribe, Andereño Ana Mari, Mari Korrea, Julita Berrojalbiz, Maria Luisa Murelaga; Anjel Leniz, Teresa Erkiaga, eta Elena Akordarrementeria.



Beste argazki hau ere atera genuen, menditik, gaur egun DBH-koen eraikina dagoen toki beretik, ikastolako ikasle, irakasle eta langile guztiek.



dzanga geurera  
**ibilaldia**  
lekeitio 03



Ibilaldia 83

Bizkaiko ikastolen jaia da IBILALDIA. 1978an antolatu zuten Gexon lehenengo aldiz, Uribe-kostako ikastolek. Ondoren 1980az geroztik, urteroko hitzordu bilakatu da. Lekeition, 1983an eta 2003an ospatu dugu, baina Ondarroan ospatutakoetan 1993an eta 2011an ere parte hartu dugu, Lea-Artibain ospatu diren IBILALDIAk eskualde planteamenduarekin ospatu izan dira edizio guztietan eta. Helburuak, sasoi eta une bakoitzeko egoerari egokitu behar izan dira: Euskalerrian hezkuntza sistema berri-zaile propio eta herri dinamikatik sortutakoa zabaldu eta sendotu, beti urriak izan diren eta diren baliabide ekonomikoak bilatu, edo euskararekiko eta euskal kulturaren inguruan urte osoko jarduera kateatua biribildu. Oro har, horiek izanik helburu nagusiak ezin ahaztu IBILALDIA antolatzeak berak, batzuetan lozorroan egon litezkeen parte hartze asmo eta gogoak esnarazteko bide eman izan duela, hezkuntza komunitate osoaren indar eta

ilusioak piztu eta dinamika berriak eraikiz. Horrela IBILALDIA lau aldiz antolatzea bezain baliotsua suertatu izan da, lau ediziootan aukera aparta izan dugula ikastolaren barne bizitzarako elikagaiez hornitzeko.

Ez da ahaztekoa, lortutako diruak, herriko taberna, denda txiki eta enpresa handien aportazioak barne, eskualdeko hezkuntza komunitate desberdinen artean banatu zirela. Esaterako, 1983ko ekainaren 12an Lekeition izandakoaren irabaziak, Ondarroako Zubi-zahar, lekitioko azkue, Markinako Zerutxu, Aulestiako Urregarai eta Bolibarko izen bereko ikastetxeen artean banatu ziren, gela eta ikasle kouruaren arabera. 2003koari esker, Lekeition, DBHkoen egoitza eraiki zen.



Ibilaldia 03

## Krisitik berrindartzera (1993-2006)

1993an Ondarroan eskualdeko bigarren IBILALDIA ospatu genuen hango ikastolarekin batera, eta erdi-erdian harropatu gintuen **“Buesaren legea”** bezala ezagutu zenak, zeinaren arabera orduko eskola publikoaren sarea sartu ala ez erabaki beharra izan genuen; Lekeitioko ikastolak ikastolen sarea jarraitzea erabaki zuen gehiengo handiz, eztabaida sendo baten ondoren. Egia esan, gai haren inguruko gure arteko eztabaidek urte batzuetan krisi sakonera eraman gintuzten, bai talde bezala, bai partikulariki Lekeition ere. Krisi ekonomiko batek ere orduantxe eraso gintuen, eta jaiokuntzen beherakadak ere bai.

### 1994tik 2006ra krisitik berrindartzera eta proiektu pedagogiko berrietan murgiltze aldiak kokatu gintuen.

Berritze bide horretan, Haur Hezkuntza lehenik 2 urteetara eta gerotxoago 0 urteetara abiatu genuen, urrats hori ematen herriko lehen ikastetxea izanik. Horrela, HAUR HEZKUNTZAko lehen etapa horrekin (0-2 urte), zutabe pedagogiko berrietara eta gaur eguneko jendartearen beharretara egokitzea eman zen.

Garai hauetan halaber eta nolabait DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAren eskakizunei erantzunez, beharrezkoak ziren instalakuntza eta ekipamendu modernoak eraiki eta ipini ziren. Horretarako 2003an antolatu zen IBILALDIAK beharrezkoa zen bultzada eman zuen. Eraikin berriak, aurrerakuntza eta hobekuntza plangintza berrien aplikazioa erraztu zuen eta modu horretan adibidez, uztailan Lekeitioko ikastolan egin ohi ziren udalekuei (INGELES UDALEKUAK, IKASPILOTA UDALEKUAK, ...) irtenbide erosoagoa eman zitzaion eta, sukalde eta jantoki zerbitzu berrien bitartez, kontsumo lokal eta naturalaren aldeko apustua bideratzeko aukera izan zen.

Baina epe honetan izandako aldaketa eta berrikuntzak ez zioten alde materialari bakarrik eragin. Hizkuntzen tratuaren eremuan, ELEANIZTASUNAren arloa zabaltzeko eta ingelesa hirugarren hizkuntza legez lantzen hasi ginen. EUSKARAZ BIZI programa hedatu zen, Euskal Herriko ikastola eta beste ikastetxe askotara ere zabaltzeko, eta, azkenik, hizkuntzen tratuaren egokian azken ekarpen teorikoak gelara eramateko, HIZPRO (Hizkuntza Proiektua) programa ezarri zen. Instalazio eta ekipamendu berriei esker teknologia berrien (IKT) ezarpena areagotu egin zen eta kudeaketa esparruan, EFQMren bitartez, kalitatearen aldeko erronkari aurre egin zitzaion.

Aurrekoek gain, Ikastola Proiektua Gizarteari begirako Proiektua izanik, hainbat ekintza garatzen joan zen. Eskolaz kanpoko jardueren antolaketa ikastolako kideei begira eta baita herri osoari begirako eskaintza bezala ulertu zen. Beste lau ikastolekin batera, Durangon IBAIZABAL ikastola berria sortu genuen (batxilergoa ezartzeaz gain, Lanbide Heziketaren euskalduntze premiak asetzeko borondate tinkoarekin) eta formakuntza erakundeekin (INEM, URTXINTXA...) lehenengo hitzarmenak egin ziren ikastaro bereziak antolatuz.



2002ko ekainean izan zen lehenengoz, “Dzanga dantzara” ikuskizuna eskaintzen diogula Lekeitioko herriari. Azken ikastola egunean gauzatzen hasi bazen ere, urtetik urtera datak ere dantzan egiten izan du. Azkena, 2014koa, ikastolaren 50. Urteurrena zela eta, zapatu goizean egin genuen. Ekitaldia, Ateatik plazarainoko kalejirarekin hasten da, trikitilari, pandero-jole, txistulari, erraldoi eta dantzariekin, eta Independentzia enparantzan bertan izaten da. 150 bat dantzarik parte hartzen du, 6tik 14 urterarteak, eta dantzatzen direnen artean, badira gure eskualdeko Mahai Gainekoa eta Salinas Salinas. Dantzari guztiak eta ikusle animosoen arteko Txula-lai dantzak ematen dio amaiera, ordu t’erdi bueltako emanaldiari. Argazkian 2011. urtekoa.





Betidanik izan da Ikastola Lekeitio alaitzeko partaide, Karnabal egunean. Haseran, batez ere edozein materialarekin sortutako arropekin kaleratzea zen helburua, baina, ikasle nagusiak kalejiran inplikatzeko zailtasunak ikusita, ikastolako guztion artean, lehengo ikuskizuna gauzatu zen, 1995. urteko inauteri egunean: Azkue Zirkus. Gaur egunerarte. Lehenengo urteetan, plazan egiten zen, Santi Brouard kiroldegia, eguraldi oztipoen kontrako aukera gisa erabiliz. 2001. urtetik aurrera, erosotasun eta baliabide arrazoiakgatik, zuzenean frontoira joaten gara. Gai desberdinak landu dira, batzuetan sozialagoak, besteetan ludikoagoak: sare pelagigoak eta ipuinak, komunikazioa eta denboraren makina, olinpiadak,... Momentu honetan, lekitiarrontzat egun horretarako elementu oinarritzotzat har dezakegu. Eta datorren urtean, zelan joango ote ikastolakoak?

Argazkietan, 1990eko karnabala, eta 2010. urteko emanaldia, Euskal Mitologiari buruzkoa.



2013. urteko Santa Ageda eguna, Ikastola aurrean. Manuren gidaritzapean.

Betidanik izan du ikastolak, euskal kulturaren adierazpenak berreskuratu, moldatu eta zabaltzearen sena. Marriesiekin hasi ginen, trikitrixa eta pandero ikastaroaekin jarraitzeko. Kepa Junkeraren eskutik lehenengo urteetan, ikastolako ikasleentzat ez ezik, herritar guztientzat zabalik zeuden., gure inguruan trikitixaren musikaren zabaltzearen helburuarekin. Lekeitio, Ispaster, Mendexa, Amoroto eta ingurukoek ikasi dute trikitixa eta panderoa jotzen bertan. Klaseak emateaz gain Lekeitio kalejira bi egiten genituen urtero: Gabonetan eta ekainean, Sanpedroetan). Bere fruituak eman ditu eta gure eskualdean zehar hor dabilta bertan ikasitakoak kaleak alaituz.

Santa Ageda, ikastolaren hastapenetatik egindako ekintza dugu. Gure argazki zaharretan ere agertzen dira ikastolako umeak S. Ageda kantari. Azken urteetan guraso eta ikasle ohiak elkarrekin, ikasle eta irakasle taldea kantari irteten da, urtero koplak berriak asmatuz.

# IZERDIA ARGAMASA

Zenbat gauza esan daitezkeen gai honi buruz, eta zein zaila den itxura berriz hitz egitea gai honi buruz! Zer ez ote da esan dagoeneko ikastola eta elkarlanari buruz. Baina agian behar beste aipatu ez direnen artean bada gauzatxo bat interesgarria eta garrantzitsua: ikastolaren barne elkartasuna bere izaera kooperatibotik dator, noski, baina barne elkarlan horrek eta barne elkartasun horrek kanpo proiektioa izan du, herrirantz zabaldu dena eta herritik jaso dena. Horrek Lekeitio egin du.

Ikastolaren jatorriari begiratzen badiogu, harako garai ilun haiek, elkarlan kolektibo ikaragarri bat ikusiko dugu: etxea utzi zutenak, dirua jarri zutenak, musu trukean lan ikaragarria egin zutenak –irakasle zein herritar-... eta ikastolara euren umeak eraman zituztenak (maiatz honetan antzerki bihurtuta ikusi dugu ahalegin hori modu oso txukunean adierazita). Ahalegin kolektibo-kooperatibo horrek ezaugarri jakinak eman dizkio ikastolari, bai, baina baita herriari ere. Ikastola, gaur egungo guraso, ikasle eta irakasleak zorretan daude belaunaldi harekin, egin zuten ahaleginarengatik noski, baina baita ere ahalegin hori egiteko moduarekin. Horri esker daukagu ikastola Lekeitioko ondare modura, guztion ondare modura. Zertzelada modura hau adierazten duten hainbat detale daude: edonorentzat ateak zabalik dituen instituzioa, hezkuntza herriaren bilakaerari lotuta ulertzen duen erakundea, nazio osoa jarduera esparru dena, gurasoen protagonismo osoan oinarritutako proiektua... Finean ikastola irakasle, ikasle eta gurasoen batuketa pedagogikoa baino ekuazio askoz konplexuagoa da, askoz abersagoa.

Gurasoen paperik gabe ulertezina izango litzateke ikastola ulertzea. Jatorritik gurasoek eduki duten loturak, ikastolaren giderrak heldu eta aipatu diren ezaugarri horiekin koherente izanez belaunaldiz belaunaldi

eramateko konpromisorik gabe ez legoke ikastolari, eta Lekeitio bera ere nabarmen ezberdina izango litzateke. Gurasoek eta ikastolako langileek berena egin dute ikastola, eta berena egiteko modua gainera ez da izan hezkuntza soilik, ikastolak berak bizitzeko behar izan duen lana eta izerdia izan dira. Ahalegin iraunkor hori eskatzea izan da ikastola bizirik mantendu duena, eta indar betez ekarri duena duela 50 urteko sorrera horretatik.


Izerdi kolektibo horrek sortu dio gihar sendoa RM Azkueri. Esan dezakegu, lotsa arrastorik gabe, ikastola kooperatiba dela ez forma juridiko kooperatiboan, baizik eta modu kooperatiboan lan egin dutelako gurasoek, irakasleek, ikasleek eta herritarrek urtez urte. Adibide zuzenak asko daude: auzolanak, jaietako taberna, Kontseilu Errektorea eta guraso taldeak, inauteriak, Gabonetako emanaldiak... Zeharkako adibideak lausoagoak dira, baina ikastolan egiteko moduek gure ikasleak herri bizitzan txertatzera eraman ditu gizarte, kirol eta kultur ekimenetan.

Izan ere hau izan baitaiteke ikastolaren izaera kooperatiboaren helmuga adierazten duen azken ideia: izaera kooperatibo hau elkarlan modura, ahalegin kolektibo modura ulertzen badugu, ahalegin hau ikastolaren hormen barruan geratzea zorakeria litzateke. Lekeitio duela berrogeita hamar urte ekin zuen ahalegin horrek ikastolara eraman eta ikastolatik Lekeitiora bueltatuz ixten du zirkulua. Hau da, ahaleginak kolektibo izaten jarraitzen du, eta ikastola eta bere partaideak (ikasle, guraso, irakasle/langile), ez dira elkar eraginean dagoen hiru erpinen hiruki modura ulertu behar, baizik eta elkarreragina herrira zabaldua, eta are, Euskal Herri osora zabaldua ulertu behar da. Alegia, ez da hezkuntza proiektu huts bat, gizarte eragin nabarmena duen proiektu bat da, elkarlana –edo zergatik ez, auzolana- tresnatzat hartuz gauzatzen dena.





1964an sortu zen Lekeitioko ikastola, eta urtea aldatu aurretik, Latinidade eskola zaharra eta Nieves Solanok Arranegi kalean duen etxea ezagutu zituen, Guarda Zibilak, inspekzioa, etabar, atzetik baitzebiltzan. Hainbat ate jo ondoren, Eleiz Etxera abiatu ginen, eta bertan, Elizaren babesean, 1967. urterarte gelditu. Urte hartan, Gizarte etxeko behe solairua hartu genuen; ez zegoen egoera onean, baina elkarlanean, klaseak emateko moduan jarri zen. 1975ean, San Jose kolegioko lokalak hartu genituen, nahiz eta ikasle nagusiak, Gizarte etxeko goi solairuan gelditu. Ordurako, eraikin berri, espezifikoko baten beharrezana nabaria zen, 1980ko irailean inauguratzea lortu zena. Espazio beharrezanaz puze joan ahala, bi modulu aurrefabrikatuak, lehenengo, eta Mertzedaríoetako gela batzuk alokatzea ekarri zuten, 2006an eraikin berria, DBHkoen egoitza, sortu arte. Frontoiaren estaltzea, eta HHko proiektu berriaren ondorioz egindako obrek, eman diote ikastolari egungo itxura atsegina.



## Etorkizunari begira lanean (2006-2014)

### 2006tik 2014ra erronka berriei aurre egiteko Hezkuntza Proiektua berritzen gabilta.

Etengabeko hobekuntza eta berrikuntzak izan nahi du Ikastolaren jardun motorra eta ildo estrategikoen oinarri. Hezkuntza komunitateko agente guztien parte-hartze eta inplikazioaz, Orain eta Gerorako Hezkuntza Proiektu indartsu bat eraikitzeke ahaleginean gabilta etengabe. Eraikitze lan horretarako, urteetan eraikitako zimenduei, zutabe berriak eransten ari zaizkio urtez-urte. **Europako Kalitatezko Kudeaketa Ereduan (EFQM)** oinarrituz, Ikastolako prozesuen bidezko kudeaketak, Euskalit erakundearen errekonozimendua jaso zuen 2008an, **Zilarrezko Q**-aren bitartez. Errekonozimendu hark, Ikastolako ontzia norantza egokian bideratua genuela erakutsi zigun, baina harrezkero ontzia ez da gelditu eta norantza egokian arraunean aurrera darrai.

Ez da kanpo errekonozimendu bakarria izan hori. Euskara eta Euskal kultura sustatzea izan da gure oinarrietako bat hastapenetik, bai eta euskaraz bizi eta lan esparru guztietara zabaltzea. Urteetan euskararen normalkuntzaren bide horretan egindako lanak bere saria jaso zuen 2009an **Urrezko edo Goi Mailako Bikain sariaren** bitartez.

Baina sariak sari, Ikastola mugimendua nekez ulertu daiteke, Gizarre eragile indartsua izan gabe. Eragile garrantzitsuak gara eta ez hezkuntza mailan bakarrik; gure Ikastolak ere gizarteari itzuli nahi izan dizkio sarri gizartetik jasotakoaren zati bat. Ildo horretan, azken urteetan ere beste eragile batzuekin elkar lanean ekintza desberdinak aurrera eraman dira. Horren adibide ditugu, 2009 eta 2010an, UEUrekin elkarlanean musikaren inguruan antolatutako **Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) udako ikastaroak** eta kirola, emakumeen kirola eta kirola euskaraz barneratzea helburu harturik, 2010, 2011 eta 2012an Lea-Artibai osora hurbilduz, Lekeition hasi eta amaitutako **Emakumeen Txirridularitza Biraren** etapa baten antolaketa.

Ingurumen eta ekonomia jasangarriagoaren bidean ere urratsak ematen gabilta. Horren erakusle 2012an hasten den **jantoki autogestionatu eta ekologikoaren** proiektua. Apustu honek 1) kontsumo arduratsua bultzatzea, 2) baseritarraren eta ikastolaren arteko harreman zuzena sustatzea, 3) Lea-Artibain, edo inguruan, ekoiztutako sasoiko elikagai ekologikoak erabiltzea eta 4) bertoko ekonomia sustatzea dakar.

Baina aurrekoaz gain argi dago hezkuntza eragile izanik, zutaberik garrantzitsuena Hezkuntza Proiektua dugula. Etengabeko hobekuntza eta berrikuntzaren kulturaren oinarritutako Proiektu hau lagundu eta indartzen jarraitzeko asmoz, laugarrenez, 2011an, Ondarroan, Ibilaldia antolatu genuen Ondarroako ikastolarekin batera. Horrela ekintzak sustengua ematen diote gure proiektuari eta horri esker eta teoria psiko-pedagogikoak eta neurozientziak aurrera joan diren neurrian, Hezkuntza Proiektua berritzen joan gara, bai Haur Hezkuntzan bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

**Haur Hezkuntzarako “Konfiantzaren Pedagogia”** proiektua jarri dugu martxan. Adin tarte honetarako umeen eta gurasoen beharri-zanei hobeto erantzuteko espazioaren diseinu berria egin dugu: gela espazio tradizionala apurtu eta adin desberdineko umeek konpartitzen dute espazio zabal, erakargarri eta aberatsa eraiki dugu, umea-

ren esplorazioa, autonomia eta beste gaitasun guztien garapen orekatua errazten duena.

**Bigarren Hezkuntzan “EKI”** proiektuak hezkuntza osoa eta integrala bideratzen du. Hezkuntza-eredu honetan ikaslea ikaskuntza-prozesuaren protagonista nagusia da eta hezkuntza zein kompetentzia digitalak eta prozedura metadiziplinarrak (ikasten ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, norbera izaten ikastea eta ekiten eta egiten ikastea) arlo guztietan integratuak ditu. Kompetentzien garapena du ardatz nagusia. Bizitzan gertatzen den bezalaxe, ikastolako jardunean ere ikasleak bereganatutako ezagutzak egoera errealei aurre egiteko baliatzen dituen neurrian garatzen ditu kompetentziak.

Baina Ikastolako ibilbidean beti gertatu modura, Ikastolaren egin-kizuna ez da klase orduetara bakarrik mugatzen. Ikastolaren Hezkuntza Proiektuko balore eta printzipioak landu eta ikaslearen formakuntza integrala osatzeko, gune eta ekintza desberdinak ditugu: jantokia, jarduera osagarriak edo mota desberdineko irteera eta trukaketek, elkarbizitza eta ezagutzak uzartzeko aukera ederra dira. Gaur egun, oraindik ere, ikastolaren aldeko defentsa sutsuan darraigu. **IKASTOLEN ELKARTEAN** kidetuta **Euskal Curriculumaren garapena** dugu bitarteko gure Herriak merezi eta behar duen **Hezkuntza Sistema Herritar eta Propioaren** bidean, beste hainbat ekimen eta erakunderekin batera.

Zelako etorkizuna izango lukete, amaitzeko, egunotan zoritxarrez hain ospetsu egin diren Sartaguda, Lodosako eta Ziburuko ikastolek Euskal Herri osoan eta Euskal Herri osorako lanean diharduen mugimendu nazional sendo bat ez balitz?



Ikastolen Elkarteak derrigorrezko hezkuntzako adin eta maila guztietako materialak ekoizten ditu. Gure profesionalak bideratutako sorkuntzak luzea izan du eta emaitza ugari eman ditu. Horren adibide dira azken hamarkadetan sortutako proiektuak; ezagunak irakasle eta familia asko eta askorentzat. Hor daude, besteak beste, HH, LH eta DBHrako gure geletan erabiltzen diren Urtxintxa, Txanela, Ostadar eta azken-azkena dugun EKI proiektua.

Bigarren Hezkuntzan “EKI” proiektua ez da ikasmaterial berri huts bat, haratago doa, eredu pedagogiko berri bat biltzen du bere baitan, Euskal Curriculumara garatzeko.

## BIKAIN SARIA

Ziurtagiri ofizial, publiko eta doakoa da, Eusko Jaurlaritzak luzatzen duena, eta enpresa nahiz erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duena.

Ebaluazio bat egin ondoren eskura daitekeen ziurtagiria da. Lekeitioko ikastolak 2009an urrezko saria lortu zuen.



Mari Jose Artola, Bego Gordillo eta Jose de la Torre "Purru"

## EFQM SARIA

Europako Kalitatezko Kudeaketa Ereduan (EFQM). Enpresa Bikaintasun Eredua erakundeei eredia ezartzen laguntzen dien tresna praktikoa da. Erakundeak bikaintasuna lortzeko bidearen zein gunetan dauden neurtzen du, eta erakundearen barruan bikaintasun hori lortzeko egon daitezkeen hutsuneak eta eragozpenak atertzen ditu eta irtenbideak aurkitzea bultzatzen du.

Europako Kalitatezko Kudeaketa Ereduan (EFQM) oinarrituz, R.M. Azkue Ikastolako prozesuen bidezko kudeaketak, Euskalit erakundearen errekonozimendua jaso zuen 2008an, Zilarrezko Q-aren bitartez.





**“Guk hizkuntza asko ditugu,  
baina euskarak gu bakarrik gauzka”**

Julen Arexolaleiba

Euskaraz irakasteko eta euskara indarberritzeko sortu zen Lekeitioko Ikastola 60. hamarkadan; eta horretan darrai oraindik, 50 urte pasa eta gero. Jakin badakigu gure gizartea eleanitza dela eta izango dela, baina euskarak Euskal Herrian dauka sortzeko eta birsortzeko aukera bakarra; eta euskararekin batera euskal kulturak, hau da, euskaraz egiten den kulturak. Kulturak identitatea eta kohesioa ematen dizkio gizarteari; eta horrekin batera, irauteko arrazoiak, oinarriak. Horrez gain, munduaren aurrean agertzeko orduan, modu berezian laguntzen digu kulturak. Baina euskal nazioa ez da, bakarrik, mundu globalizatu honetako izate bat, egite bat baizik, egunero egiten dena, euskaldunak egiten duena. Beraz, Lekeitioko Ikastolak, beste herritarrekin batera, euskaratik jarraitu behar du egunero euskararen herria birsortzen. Hori horrela izanda, Euskal Curriculumak garatzea dugu XXI. mendeko helburu nagusia.

## CURRICULUMA

Hezkuntzan dihardugunok zera dugu helburu: ikasleen gaitasunak ahalik eta gehien garatzea, maila guztietan. Subjektu indibidual eta herritar aktiboak heztea da gure konpromisoa, eta horrek gizartean ere izan behar du islada, gizartearen garapenarekin eta ingurumenaren garapen jasangarriarekin konprometitutako ikasleak hezi nahi baititugu. Beraz, ez da nahikoa jakintza akademikoak eskurtzea. Ikasitako guztia praktikara eramaten jakin behar da, egoera errealean aplikatzen. Azken baten, bizitzako egoerei aurre egiteko balio behar digu. Horrez gain, euskal curriculumak euskal kultura ezagutzeko, ulertzeko eta sentitzeko aukera eskaintzen du, era berean, gurearekin kontaktuan dauden beste kulturak elementu positibotzat hartuz eta ezagutuz. Horrekin, norberaren kultura aberastuz eta mundura zabalduz, ikasleari nortasuna eraikitzeak aukera eman nahi zaio.

Bestalde, oinarrizko eskolaldiaren funtzio nagusia ikaslea bizitzarako prestatzea baldin bada, ikasleak pentsatzen eta ikasten jakin behar du, kode ezberdinak erabiliz komunikatzen jakin behar du, elkarrekin lan egiten eta bizitzen, norbera izaten; egiten eta ekiten. Eta ikastolak ikas arlo guztietan integratzen du helburu hori.

## EUSKAL HERRI ELEANITZA; BAINA EUSKARA ARDATZ

XXI. mendeko gizartea eleanitza da. Hortaz, euskal herritar eleanitzak hezi behar ditugu, hau da, bizitzako egoera bakoitzak eskatzen duen ahozko zein idatzizko hizkuntza menperatzen duten herritarrak. Baina gurea bezalako hizkuntza minorizatuaren kasuan, ikuspegi eleanitz horrek baditu kontuan hartu beharreko aldagai garrantzitsuak. Euskara izan behar da ardatz, soilik horrela bidera bai-

taiteke euskararen eta inguruko beste hizkuntzen arteko berdintasun soziala. Eta, horretarako, bi elementu dira funtsezko: hizkuntzen curriculum integratua eta konpetentzia linguistikoaren garapena ikas arlo guztietan. Beste berba batzuekin esanda, konpetentzia linguistikoa ez da euskara eta literatura arloetan lantzen den kontu bat: ikasgai guztietan garatzen da. Azken baten, irakasle guztiak dira hizkuntza irakasle.

## KONPETENTZIA DIGITALAK ARLO GUZTIEGAN INTEGRATUTA

Ikasleak bere bizitzako eremu eta egoera guztietan IKT\* baliabideen erabilera eraginkorra eta arduratsua egitea da helburua: zeregin bat diseinatzen eta planifikatzean, informazioa kudeatzean, produktu digitalak sortzean, elkarlanean aritzean eta emaitzak komunikatzerakoan. Ikuspuntu horretatik, konpetentzia digitala beste konpetentzien lorpenarako osagai bilakatzen da. Horregatik, IKT baliabideak ikas arlo guztietan integratzen dira.

(\*IKT: Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) informazioaren eta komunikazioaren arloko zenbait kontzeptu eta teknologiaren bilduma da, egunetik egunera aldatzen ari dena).



Horrela ikusten dugu ikastolatik gure herriaren etorkizuna: Euskal Herrian sustraiak ondo errotuta, mundu zabalera begira, alai eta koloretsu, solidarioak izanik, eta ilusioz beterik, gazteri prestu eta prestatu baten eskuetan. Maren, Beñat eta Haritz, Omako basoan 2010eko urriaren 24an egindako mendi irteeran.

Gizartearen eskakizunei erantzunez, poliki-poliki haurrak hezteko modu berriak sortzen eta moldatzen joan gara. Ikastolan, beraz, gero eta ume txikiagoak hartzen hasi ginen. 1993an zabaldu zen HH2ko lehenengo gela, Agurtzanerekin. 1991an jaiok izan ziren gela honetako haserako bezeroak. Argazki honetan, Mari Jose Ibarrekin daude, 3 urte beranduago, HH5ekoek Mendexara, gaur egun ere, egiten duten bi eguneko irteeran. 2012-13 ikasturtetik aurrera, "Konfiantzaren Pedagogia"-rekin, umearen garapen naturala ondo bideratzeko, ikastolako espazioak eta denbora antolaketa moldatzen ari gara. Familiarekin bat eginik, lehen umeak kalean zituenak ikastola barruan aurkitzea, etxeko giroa eta ikasteko leku gozoa, elkarrekin lortzen ahalegindu gara.

